

Zer probetxu du munduaz jabetzeak ? *San Frantses Xakierekoaren bizia*

Lehen gertaldia

Koro I Atezaina

Erridaua behehitua, brigadazaina entzuten da orroaz : mitrailla zaparrada eta hiru joak. Erridaua zabaltzen da. Bainan delako joak berriz ere aitzineko soinu berean : taulen gainean, atezaina, jendeari bizkarrez, ttotto baten gainean, ari da kurutzefika haundi bat zolako paretatik dilingo denaren esku ezkerrean hobeki itzatu beharrez. Kurutzefika horrek ez ditu zangoak osoki finkatuak beherean, erran nahi baita atezainaren esku dagola kurutzefikatuaren xuxen atxikitzea.

Atezaina :

Hola bai, hortan utz ditake naski.

Zer zaitzu ? Ongi emaiten du zure alde hortarik ? Aski xuxen ? Ala hurbilegi naiz hemen...

Zer den haatik, gela orokor horiekin ! Sekulan ezin xuxen has, tenore aldetik ere holako...ikusgarrietan.

Erridaua altxatuz geroz hasten baita emankizuna.

Eta nik, zangoak ere ezin egin dizkiot.

Ez ahal zaiku, azen ontzeko, oro eroriko sarri ! Agerraldi haundiaren bete betean.

Aupa ! Goazen aitzina ! Eta gaizki eginak barka !

Bego beraz hola ! Ohantze hori ere hortxet ez ahantz.

Etzangia hori bai, bere lekuan !

Ohe bat behar baginuen, baitezpada !

Kadera batzu ere bai, bainan lehenik ohea !

Baietz ba.... Jokolariak hor diren ber...

Italiarsa baduguia ? Oraikoan, Xinatarsaren aldi.

Hain zuzen, behar baitautzuet kondatu doi bat, zer dudan ene lana, xinatarren edo, hots, aipatuz nafartar mutil bat, 16 garren mendean, nola sartu zen Xinako aldean, eta urrunago ere.

Ikusiko duzu zure begiz, Jatsu eta Xabiereko Frantsesen ixtorio egiazkoa, nola ibili zen Nafarroako etxe oneko seme hori Indietarik Japoniarainoko misiolari suhar.

Urak bide egin du geroztik. Orain aski dugu karrika baten itzulia egitea, eta badituzu han berean ostatu indiar, japoniar ala xinatarrek bi urratsetan.

Eta halaber, auzoko karrikan, horra andere bipil batzu badakitenak, lanarte batzuek, soineko batzuen xinatarki itxura bereziz marrazkitzen.

Eta hau ere gainera : badituzu hor berean, urrunago joan gabe, Iguzkialde hartarik etorri ordenagailu eta telefono berrienak (kasu itzaliak diren ala bizi) !

Holaxet...

Frantsesekin joanen zira Itxaropen-Oneko eta Malasiako itzulietan gaindi.

Ehun mila kilometroko bat gaindituz uhainetan harat, ordu hartako untzixka txarretan, hantxet baitzakiten pasaianten hiruetarik baten hiltzen, ezin garaituzko sukar tzar batzuek jorik.

Haatik, ez beldurrik izan zuk, jakinez geroz oraiko biziak eta antzerkiek erakutsirik, bakoitza osorik sartuko dela bai itzuli horietarik bere etxerat.

Egingen duzu bai San Frantsesen (ez haatik Asisiko hura), bidea, ederki jarririk.

Batere trangalarik gabe, ez-eta itsasminik, ez ere kolera izurriterik, are gutiago oraino etsaien jazarkunde eta bahitzerik, nola baitziren jauzten gainera Keralako erregeren itsaslapurrak edo han gaindiko gizajaleak.

Ehun mila kilometro beraz, urrats txarrez urrats txar, eta dena irrisku, baina zu aldiz zure lekuan lasai baitakizu eztirela zuretzat bideko ixtripu horiek. Non ez den !...

Non ez den arras beste alderat ! Nik dakita !

Hor, ibilki, zure begiz ikusten dituzun horiekin.

Jende horiek bai jazarleen irriskutik kanpo dira,

Aldiz gu...

Ez ote da gure ixtorioa orai berean eta egiazki jokutzen ari den hau !

Eta gure inguruan, hurbil hurbila, ezin ikusizko alki-lerrokadak, ezin ikusizko so-egilez beteak !

Errazu, Jauna, bainan, hortxetan, milaka eta milaka lerrokatuak dauden aingeruak, eta beste zenduak halaber zure arimaren inguruan,

Eta hor, anderea, zure oinetan dauzkatzun miresle ixil horiek, batzu eta besteak zure lanaren goresle, hauk goibeltsu eta hoik distiretan, zure arimari gorte egin nahian,

Hortxe baitaude azken tanto haren haiduru,

Gure zaindari, beha ta beha,

Bainan bego sarriko solas hau (ez nezaten begitan har hemengo kudeatzaileek, zenbaitek konduak galdeginik).

Funtsean, huna hemen Frantses.

Hain zuzen Dormans-Beauvais hiriko ikastetxetik heldu da. Bruneau zerrandeiko mahastietan barna. Iguzki apalean. Itzalak ere luzatzen hasiak dira, aratseko otoitzaren tenorean.

Holaxe dugu Parise huntan, Latin herria deituan, eta ere Sorbonako hirur-hogei ikastetxeekin, 1530 huntakoan.

Eta orduko egunak berrikuntzaren eta Pizkundearenak ziren, nahiz, erran zitakeen ere satorkeriaren eta itxuragabearenak zirela.

Ordu hartakoak ditugu Frantses lehena eta François Rabelais, bainan Frantses Xabierekoarena ez da oraino etorria.

Hunek etsaminak ari ditu prestatzen eta jadanik iragana du arteetako lizentzia, ehun onarturik hogei ta bigarren atera baitzen.

Kasko haundikoa, eta bizkitartean ez batere txarra kiroletan : gorajauzian xapeldun ateraia Andra-Mari ugartean. Zangosagar onekoa eta ez ahula segurki ixtazainez : eta ez du beste ikasle batzuen hordikeriarik bestalde.

Norbait izan nahia da gure jaun gaztea. Bere Xabiereko jauregia utzi zuen Espainiarekilako gerlak zafratua.

Bere familiako armarrereri lehengo ospea itzultzeko urguluz, Frantsesek bide egin gogo du teologian. Ezen helburu joria baitzen orduan teologia, zerbaitetarar heldzeko.

Huna beraz baduela girixtino on horrek, bere mundukoetan girixtino ona baita Frantses, badu bai kalonje alki bat begizatua Iruñean.

Helburu bat behar da alabainan, ez dea hala ? (*So egiten dio kurutzeari*). Alde bateko helburua.

Horiek oro gogoan, huna heltzen dela Jondoni Jakobe karrikarat, hor baitu bere gela Santa Barbara ikastetxean eta gela hori hartua du erdizka Saboaiar lagun gazte batekin, Pierre Favre deitua, eta hor da sartu berria beste bat.

Beste bat bai, aski fama txarreko gizona.

Atzo ospitaleko herresta batzuekin zabilan.

Herenegun emagalduta batekin.

Egun berriz peste-gaitzak kotsatu erromes batekin.

Eta gehiago dena, eskuz hunkitua ere du, nork daki ez den kotsatua ? Eta, gela berean egoiten baita, ez ote duen Frantses kotsatuko ?

Entzuten da Frantses heldu, kantu murmurikan !

Frantses Xabier :

*Ezarrak marra goren hortan
Gora neurria nun deraukan
Mugarik ez daut nehork eman
Goazen gorago xaramelan*

Atezaina :

Abisu emanen diot irriskuaz !

I. Gertaldia

Atezaina, Frantses Xabier.

Jondoni Jakobe karrika, Unibertsitatearen gibelego gunea.

Atezaina :

Ez gero urrunago, puttikoa !

Frantses Xabier :

Urrunago ?
Neure etxera noa ni.
Ez aitzinatuz niz urrun egonen.
Ontsa ulertu badut zure solasa, anderea, nahi duzia urrats biziagoan joan nadin.

Atezaina :

Ez urrunago, erran nahi dautzut, ezta behar...

Frantses Xabier :

Zuk galdeiten dautazuna, hots, ikusten dut ba, aski duzu deplauki galdeitea.
Nik ez baititut solasak hiru koropilotan beste zonbaitek bezala :
Nik moltsa ere bihotzaren menean dut eta beharrez eskupean.
Ez haatik hori ere aski ez hain segur !
Koropiloak desegiten dazkot zu bezalako andere batzuek.
Orizu, orizu sos hau...
Har azu har, ez egon herabe, ez dautzut ordainik galdeginen.
Behar ahal dut nik ere ene sartzea pagatu, har azu bada.

*(erdi kantuz) : Har azu har azu,
gero brixtez liburuetarako nauzu !*

Har bai har, ez egon herabe :

Emadazu eskia !

Zabaltzen dio andereak bere esku eskuina

Idek azu idek

Idekitzen dio andereak baina bizkarrez

Ez hola, ez, batere !

Idek azu ahurra, hartzeko gisan

Hartzeko bai nik emaiten dautzutana.

Atezaina, hartuz :

Bainan ez dut nik deus eskatu.

Nahi nion xoil xoilik eman abisu, bere etxean duen izurrite irriskuaz.

Izigarrietara doala hola segituz.

Frantses Xabier :

Zer diozu ?

Zuk hitzik ez aski ene eskertzeko ?

Bainan nik zitut zu eskertzen, zuk erakutsi dautazu emaiten, ene buriaren emaiten, predikari, elkor horren ganik ikasi dudana egiten, hain zoragarria den predikari elkor horrek bere elkor ixiltasunean entzuten diena entzuten eta egiten.

Hori zion, bere buria besteei emaitiaz.

Eskerrak zuri, andere pollita, eta ikus arte, behar dut ernatu.

Han ditut besteak haiduru eta...

Atezaina :

Zaude, zaude. Ez naiz ez diru beharretan.

Frantses Xabier :

Ze beraz?

Zuk ama ez-ontsa duzu? Ala zuhaur?

Zure buria ez bada, anaia zenbait?

Erradazu bada. Ahal guzia egin dezadan zuretzat.

Eta erradazu zalu. Ene egitekoak badituz.

Atezaina :

Denak ongi dituz etxean

Erran nahi dut, eguneroko hartan.

Ala zuhaurk...

Frantses Xabier :

Bego hortan, gaixoa.

Badu zenbait egun ikusten zitudala eni so eta so, hantxetan urrundik.

Gostukoa zitut ba, anai batek bezala, anai-arrebak bagine bezala, eta hemen nago zure laguntzeko, bainan hortan geldi gure amodioa.

Nahi duzu bigarren diruxka bat?

Orizu ! (*kantari :*) hartu, hartu, hartu !

Nik neure gelatik dut kantu !

Harrigarriko aldafera entzuten da, ikastetxe aldetik...

Ikasleak jauzteka ihiziak bezala.

Atezaina :

Hori bera nahi nizun salatu !

Frantses Xabier :

Zer dute hola lasterka ? Zuk ba ote dakizu zerbait ?

Atezaina :

Holako lasterrak, mainguaren gatik ditazke...

Frantses Xabier :

Ze ? Zakur karrikako gizagaizo hura?

Bere hetarik egin ote du berriz ere euskaldun erhoska horrek? Bainan pika zaintzeko mamu hortaz axola dienik ezta lastometako murru-zoririk ere !

Bere gisako predikari bitzi bat dugu hori, amets eta izarretakoa, hala nola haizeak derabilan xandela-argia.

Intsentsu lanoak dioke bururat egin. Uste du mundia bururatzera doala bainan nik bizi hau dut orai haste. Dena ifernu mehatxu da, haatik egia da ez liola uli bati minik eginen !

Otso zahar bat dugu hori esneko hortzekin. Hogeitaz hemezortzi urtetan hor dabila, eskolako haurren alkietan eta nihauri, 15 urtez gazteago nizalarik, ari zait logika-ikasketako erroen esplika galdez.

Ez daki, gaixoak, esaera baten oinarritzen ere.

Atezaina :

Badaki haatik gazteen lillurutzen. Bere zeporat biltzen ditu. Toki txarretarat enganatzen. Eta han, entzun...

Frantses Xabier :

Nik diot bai bere meneratzen ari diela Favre ene adiskidea. Baserritar on hunek iresten ditu haren zimardikak, oro.

Nihauk ikusia dut, zientzia ikasketak utzirik, orenak eta orenak iragaiten hantxetan xorabiretan, toki ariketak egiten, berak dion bezala, amestuz Jerusalemen dela Jordan hegian Jesusekin ibilki eta bera ere nigar hipaka Mariarekin Jordan bazterrean, gu aldiz hemen gaudelarik Pariseko Seine ibaiaren hegian.

Jerusalemen bai, gu aldiz hemen Parisen...

Baditakea, zinez, holako denbora galtzerik ?

Atezaina :

Bainan entzun bada zure maingu horren azken balentria...

Orai, Frantses ez dago so, batere. Murmurika batean ari da bakarrik, axola gabe, aitzineko ateraldien haritik, bainan gogoetan doi doia, hitz soil bat edo beste noiztenka.

Frantses Xabier (bere buruarekin) :

Bere hetarik egin gure euskaldun erhoak, gaizo predikari ameslari harek, hori bai, haizeak derabilan tortxaren argia iduri, batean keetan eta bestean garretan eta intsentsiak bururat eginik ere, ez niz ni, putikoa, beste sinketa eskolagabe horrek xorabiratuko dien uzkinazoa, ez baita murru-zori edo pikarik baizik horrek izituko dienik, aldiz nik horri logika irakasten, berak ez dakielarik esaera baten oinarritzen ez-eta moldatzen ere, den bezalako predikari gizagaizo ameslari horrek..

Atezaina :

Egun, hain zuzen, Seine ibaiaren beste aldean egin duena ere zerbait bada : ez dea hantxet izan etxe zikintsu batean, hain zuzen peste-izurritearekin leher ezin eginez ari zen eri baten baitan !

Sustengatu behar omen zuen. Eta hari musu eta pereka, ezin gelditua gure gizona, eta haren handitsu eta jarioeri dena maina eta sinomino.

Lepradunari eman zion musu hura ere !

Eta horra : karitatez joan erien sokorritzerat, eta ongi direnak gero kutsatu !

Bere gelako ikasle lagun batetik haste.

Frantses Xabier :

Nik ez dut dohakabe horren beldurrik, anderea.
Ene ondoan lo egiten du.
Ene ikasle dut hori, esaera oinarritze-moldatzeetan.
Eta horra orai banoala hemendik Santa Barbaralat.
Uzten zitut, bainan ene beharrik balinbauzu !...

**Koro II
Atezaina**

Girixtino on bat gizonen munduan...
Nik ere entzuna dut predikari zahar elkor hori bere prediku luzean.
Bere burua besteren zerbitzuko emaitiaz.
Besteeri emana dena, hura dela zinez aberats.
Alta bakotxak bere burua ere ez ote du lehen!
Delako maingua, Frantsesen gomendioz, ezarri zuten ikastetxetik haizaturik hamabost egunez.

Kanpo hamabost egunez
Gero agertu zen etzuela pesterik bildu.
Gure kirolaria eta eria orduan ziren buruz buru gertatu.
Oheak, errana dut, garrantzia haundia du Frantsesen bokazionean.
Mainguaeren ganbera berean mainguaek eta biek bide duten ohe hura bai.

**II. Gertaldia
Inazio Loiolakoa, Frantses Xabierekoa.**

Ikasle gela bat Santa Barbara ikastetxean

Inazio Loiolakoa :

Frantses Jauna, zein pozik nagoen zu ikustearekin !

Frantses Xabier :

Ni ez. Garbiki diot ez niela zurekin nihauk gela hunen erdizkatzeko gogorik

Inazio Loiolakoa :

Nahi dezun bezala. Berdin etzaitut luzaro aspertuko. Edozein moduz hona laster bezperen ordua.

Frantses Xabier :

On dagizula. Zoazi ene arimaren fagoretan otoitz egitera.

Inazio Loiolakoa :

Bego hori nere gain...
Hain zuzen, zoriondu nahi zindudan zure azken markarentzat, gorako salto hartan.

Frantses Xabier :

Han baitzinen, Andramari ugartean ?

Inazio Loiolakoa :

Jendearen artean, txalotzen zindudan.

Frantses Xabier :

Ala eni eman nahiak zintien mazelakoen zaflak ziren esku klaska horiek ?
Hastio dituzu naski holako jostetak.

Inazio Loiolakoa :

Zer ? Erren bat ez ote da harrituko anka arin baten marka hoietan?

Gogo haundiz txalotu det zure bizitasuna.

Ikusi zaitudanean, ahuntza, ximixta bezala, abiatzen, eta pilota bezain arin
heltzean, neure gogoan esan det : noraino ote gorakada hori ?

Frantses Xabier :

Zu bezalako otoizle batek, peste izurritekoen ilun adiskide zu bezala gainera, eztaut
holakorik erraiten ahal trufatzeko baizik !

Inazio Loiolakoa :

Jainkoak gorde nazala!

Kreatzailearen dohaiak miresten ditut zukan.

Frantses Xabier :

Miresten bai ! Igela edo apo batean mirets zinezazken bezala.

Maiteko zinuen bai, zendako ez aitor, zango bat hautsi banu hor.

Inazio Loiolakoa :

Zer atsegina niretzat hegalak sortuko balizaizkitzu ?

Frantses Xabier :

Aitor azu bai, lorietan ikusiko ninduzula ohantzean etzana eta ni han zure prediku
meleka heien entzuten gizonaren zorigaitzaz eta holakoen zeruratzeaz.

Inazio Loiolakoa :

Ojala ! Izan zaitela bai saltoetan xapeldun laur hoge urtetaraino eta gero ere !

Frantses Xabier :

Hori bai, hori, makila batekin herrestan, zainak inorturik eta hezurak hauskortuak,
berinaren pare...

Ahal dakizu zuk, garrantzi ttipikoa dela gora-jauziko jokia funtsera-ta.

Inazio Loiolakoa :

Ez ote nauzu argitu, joan den egunean, arrazoiarekin aurrera eramateko degula gure
bizitza, gure gaitasun guziak izan genituela, indartzeko, eta bide hortaz ditugula zerbitzatzen
jakinduria eta gizartea eta, Eliza saintua ere berdin ?

Frantses Xabier :

Geldi otoi.

Geldi zure legunkeriak. Atzo ari zinen pobreziaz eta probidentziaz, fidagarritasunaz,
dena prediku.

Inazio Loiolakoa :

Pobrezak nau ni ere egina zure aberastasunen eskale,
Jainkoaren eskuak nau hemen gela huntan ezarri zurekin
Eta berak du nahi zuk argi nazazun.
Eskerrak bai zuri ! Zu gabe galtzera nindoan.

Frantses Xabier :

Euskaldun erho huni !

Inazio Loiolakoa :

Erho izatea ahal da zure iritzietara makurtu nadin ? Ni ez naiz... A ba !

Frantses Xabier :

Zer da ?

Inazio Loiolakoa :

Nire andregaiak deitzen nau.

Frantses Xabier :

Zure andregaiak ?

Inazio Loiolakoa :

Nire zauri zahar hau bai. Anka hau bai, eta zain hau koropillatzen baitzaizkit, gitarra baten hariak bezala.

Etzan behar dut otoi !

Non giñan beraz ? Seaska-kanta bat ahal zenidan zuk kantatzen ? Ez, etzan hori.

Jarraitu aurrera, Frantses Jauna, eta ez nazazula durduri ezarri,

Hemen lasai nagoela ez naute botako.

Frantses Xabier :

Zu, holako buru-berotzailea izana ikasleelin, ekartzen zinitielarik trumilka ospitalerat, hil-hurranen arterat, eta ni nahi nauzu orai ororen txalogarri ezarri gizartean.

Jakin zinieneko diru beharretan nintzala neure ixtudioen segitzeko, bildu zinazkidan ingururat entzule gazte ahaldun batzu.

Eta badakit ere zuhauk bultzatzen dituzula ene alde beren eskuzartekin.

Inazio Loiolakoa :

Hala da bai, zuk txaloak oso mereziak ditutzula.

Frantses Xabier :

Besteak behartsuen artean ezartzen ditutzu, eta ni legunki daudenetan nahi.

Zertara nahi nuzu hel-arazi, Inazio?

Ala hain hortaraino gaitzesten nuzulakotz?

Inazio Loiolakoa :

Baiña adiskidea...

Frantses Xabier :

Nolaz ez nuzu jende erromes eta erietara deitzen ?

Ala ez naukazulakotz gai ?

Inazio Loiolakoa :

Mesedez anaia...

Frantses Xabier :

Ez niz ni ez zure anaia, ez-eta zure adiskidea. Zure etsai nitien nik ene anaiak Iruñeko setioan, eta zu gure suntsitzale beharrekin zinen español alderdian Nafarroaren kontra eta hau Frantziarekin eskuz-esku !

Inazio Loiolakoa :

Hola dit neri, zure anaiek bidali-ta , artileriako bola batek zankoa porrokatu, mahatsa dolarean bezala.

Frantses Xabier :

Ze ? Zango hori... ez baitutzu sortzezkoa ?

Inazio Loiolakoa :

Luzaroan, bai luzaroan egona naiz, ezinduta, ohe gainean, oihu karrazitan, helbarritua, azkenean uste nuela Jainkoa bera ni bezala helbarritu bat zela, ez ahal zezakeen hark ere eskua luzatu, eta nire zankoari itzuli osasuna !

Nire hezurrak, dana dala, lotu ziren berriz alkarrekin, baiña ez beren tokian puska hoiiek danak.

Baneukan hor, belaunaren pean, hezur bat bestearekin trakets lotua.

Konkor itsusi bat egiten zidan, eta anka bat laburragoa neukan. Ezin sufrituak ezagutu nitun. Kortean egin nahi nuen bizia, eta gero militarretan.

Korrika bai, zu bezala ibiliko nintzala.

Salto ere, zuk bezala...

Eskatu nien medikuei hezur hura berdintzeko.

Baiña esan zidaten baietz iztarra behar zela berriz iriki hortarako, eta karrakatu hezurra eta aurrekoak baino haundiagoak sufritu behar izango nitula.

Baietz nik, mesedez, moztu eta ebaki zezatela bidurrik gabe beren eskalpel, aisto, labana eta beste lanabesekin.

Irakurriak nituan aintziñako zaldunenak, Amadis Gaulakoa, eta Mahain borobilaren zaldunenak...

Nik, Frantses, nahi nun zaldun indartsu bihurtu eta horrek eman zidan indar eta koraje ebakuntza hartan.

Baiña, ebakuntza etzan nahi bezain ondo joan, eta nik halaber ez det geroztik xuxen eman urratsa.

Erren nago orain, maingu zuk diozun bezala, mundu honen antzera, eta betiko.

Urrats guzietan harri kozkor eta kozkak, ikusten eztirenak oztopo egin eta belaunikarazten nautenak

Frantses Xabier :

Hauxe da suerte txarra, orai ikusten dut gaixo gizona. Holako anka makurrarekin, beti jende herrestaren artean, ez duzu ondikotz urrun ibiltzerik...

Ene Nafarroako anaien izenean eta gure Nafarroa lehertuaren izenean, barkamendu galdatzen dautzut. Barka otoi zure ibilaldi zuzenak hortaraino guk funditurik.

Inazio Loiolakoa :

Ezin barkatuko dizut.

Frantses Xabier :

Egia, egia, izigarri dela kurrizko ezindura hori.
Betiko urrats sinketa hori, eta hor gizona, ororen mespretxu eta urrikalgarri.
Eta beste guzien gainera, hor ibili behar hogeita hemezortzi urtetan oraino, beti ikasle,
zure biziko bide-sailak enpoildurik, eta geroa itsu, bixta gabeko zero apal batek lehertu
bazintu bezala,
Bai, urrikari zitut, Inazio...
Nihaur maingu banintza bezala, ze errabia !
Ai ! Zerbait egiten ahal banu, zuretzat...

Inazio Loiolakoa :

Ezta batere hola, Frantses ! Eztetzu ondo ulertu. Nik ez dizut barkatzen ahal, ez
zuk, ez zure anaiek ez baitute hortan errurik.
Alderantziz, ni nago zorretan zurekin.

Frantses Xabier :

Zu zorretan ? Eta zure biziko saila errekaratua ?

Inazio Loiolakoa :

Beti aurrerako asmoan.

Frantses Xabier :

Bainan zure ezindura horrekin, ze aitzinamendu ?

Inazio Loiolakoa :

Goragoko dei bat.

Frantses Xabier :

Ze ? Urrats herresta sinketa herremela horrekin ?

Inazio Loiolakoa :

Ordu guzietan, nahi ala ez, dantzari.

Frantses Xabier :

Eztuzu bederen lehengo zango haren dolurik?

Inazio Loiolakoa :

Jakob ere erren gelditu zen aingeruarekin burrukatuta. Jainkoari behar zuen errua
bota?

Frantses Xabier :

Bainan zu, oheko baizik etzira hortxetan, zangoz aitzinerat. Ohetxo hortan etzanik
biziaren azken hegian.

Inazio Loiolakoa :

Ohe hortan etzanda biziaren haseran bezala.
Ankaz aurrera baiña begiak zero alderat.
Ohean etzanda, nola zaldun itxaropentsu,
Itsas zabalera doan itsasontziko kapitan.

Frantses Xabier :

Bainan ahulezia hori, eta zaurien xehakadurak..
Eta uste duzu mahain borobileko zaldun izaitea ?

Inazio Loiolakoa :

Gurutzearen zaldun izan ninteke.

Frantses Xabier :

Ahal den jaunxkila bai zu orai, Inazio.
Azken xaramela baten ilunduran etsiturik.
Zure Jainkoa daukazu ezindura horren ezinbertzeko iheslekua.

Inazio Loiolakoa :

Frantses Jauna, horiek hola dirala, badu Inazio Loiolako eskolagabe hunek galdera bat zuretzat.

Ikasketako galdera bat.
Galdera bat indarrari buruz, hain zuzen.

Frantses Xabier :

Egizu zure galdera, Inazio, gogotik ihardetsiren dautzut.

Inazio Loiolakoa :

Gure erakasle jaunek, Sorbonan, erakasten digute harrokeria dela gaitz guzien iturria.
Eta gure etsai haundiena.

Frantses Xabier :

Hala da.

Inazio Loiolakoa :

Esaidazu beraz : bere harrokeria garaitzen duenak, bere burua garaitzen bai aitortzea gatik ezer eztela bera, Jainkoaz baizik, hura ahul ala indartsu ahal da ?
Haundi ala txiki ?

Frantses Xabier :

Zure hastapenaren arabera,
Indartsu eta haundi da, zeren garaitu baitu etsaietan izigarriena.

Inazio Loiolakoa :

Baiña bere harrokeria zanpatzea ez ahal da bere burua txiki egitea ?
Ez ahal da hori bere burua txikiago, xumeago egitea ?
Kukuso bat izatea,
Guziahaldunaren zorri bat,
beraz, haundi izatea bere burua txiki egitea da eta alderantziz,
Jainkoak garaitua bi aldiz garaile da
Goikoak azpiratua mila aldiz gorago igotzen da
bere indarrez bakarrik ari dena baino.

Frantses Xabier :

Nahasten eta xoratzen nuzu, Inazio.

Inazio Loiolakoa :

Esaidazu bada, apal daukazula zure burua ?

Frantses Xabier :

Arte bat hedatzen dautazu hor zuk, ihiztaria ! Arte bat.

Neure burua aski apal egiten badut, urgulu higuinenaren sare txarretan erortzera noa.

Urguluz hantua naizela erranez, apaltasunaren itxura faltsuak ditut bakarrik.

Inazio Loiolakoa :

Bai, baiña, nork daki ez ote dizun harrokeriak aitor erazten zure harrokeria aho-betea !

Frantses Xabier :

Zuk hala eztena itxuratzen duzu Abelard eta Buridan batzuek ez bezala.

Inazio Loiolakoa :

Zure hitzak aberasgarri izan dira niretzat.

Baiña ordua badoa eta anka hau hobeto det:

banoa bezperetara nire dantzari urrats trakets honekin. Agur.

Frantses Xabier :

Ez oraino. Zaude hemen.

Beraz arrazoina nien.

Biltzen dituzularik txalotzaleak ene ganat dena zurikeria eta konplimendu, hastio nauzulako seinaleak, hoik oro.

Enetzat dauzkatzularik apezpikuen mitra, xingola, balusa, edo kalonje jakintsunen buruko laukarakoak, xorakeria eta lausengu galgarri horiek oro.

Segurki, maite baninduzu zinez,

erran dugunaren arabera, etzinuke enetzat arrosa koronarrik, bai haatik elorritzko korona.

Ez ninduzun orduan gora-jauziko balentrientzat zorionduko, bai haatik zinezko apalenerat trebatuko.

Inazio Loiolakoa :

Frantses, hitz hoiek berdin arriskutsuak ditutzu jendarteko pakearentzat, nola Goiko agintarientzat.

Goiko agintaritza, hori Jaunaren borondatezkoa da, guzien onerako.

Eta zu, izan zaitezke orobat doktoragoaren jabe eta apal egon hala ere, daukazunez aberats baiña behartsu bihotzez, gotzai izana gatik, apal egonez zure kapa urredunaren pean.

Aski indartsu izanik, ez bazaitzu harrotzen burua.

Hori izan diteke zailena.

Izan ere gu bezalako harroentzat, biderik latzena ez baita gora doan hura, behera doana baizik

behera jetsi beharko baita egun batez

oraintxe bertan, lur zulo baterat

orduan, zer geldituko da?

Zer probetxu izanen du munduaz jabetzeak, arima galtzen bada ?

Frantses Xabier :

Zer probetxu mundua irabazteak ?
Bainan dena probetxu da !

Inazio Loiolakoa :

Dana galduz, oraintxe bertan.
Haunditurik jartzen da, apoa bezala, airez beteago eta hutsago, zabalago eta lehergarriago.
Gizentzen den aziendaren antzera, lodituaren uste faltsuan harrotua, eta berak ez jakin ez ikusten hiltegiara daramatela,
bai hiltegiara, Frantses.
Zeren ahaztu baita betidanik dana
ahantzi betikoa den bizi bakarra.

Frantses Xabier :

Ordian nindaik ni, lurperatu nahi ez dien ezkurraren pare,
Bere itxura ederraz hartia, bere borobil legun miresgarri gorrittoan lorios, bainan...
ezkurra, gaizoa !
Eta ezkurren erregea zer da, haritz guzietan mendrena baino gutiago oro har.
Ezkurra lehenik urratzen eta lehertzen ez bada.
Xoroen xapelduna gaizoa, besterik ez!
Iduri dut bere zauriak ezin estaliz ari den eria,
nola sendatuko du medikiak halakoa?
Eta bada zauri bat egiazki ene bihotzean zabalik
beha dago saki hori bainan nehork ez josten ez erretzen mundu huntan.
Ala diruak?
Bainan hori ezta ontasun bat ere, gutienaz ontasun iturri, eta ontasun horiek etzaituzte
asetzen, urtzen baitira eta lerratzen, aztaparrean doi bat tinkatzen direneko.
Atsegin lizunak?
Hunek, gozatu arau, gohaindurik uzten du eta hor dago norbera, udare lehertia
bezala, bere bihiak galdu ditielarik, usteldu denean fruitu hila.
Ohoreak ?
Oker eta itsien eskaintzak ditugu. Badakitea bederen nor giren, badakitea zer den on,
sumatzen dutea gure egiazko merezimendia, guri holako lore-lausengu girgillen sakatzeko ?
Zuritzen gituzte, berek beren tanto partea tiratzea gatik.
Zerk hetsiko du ene bihotzeko sakiaren aho zabala ?

Inazio Loiolakoa :

Beheiti doana da bideetan zailena. Behera jetsi zaite, Frantses, baiña jetsi
segurantziz !
Bat da xume egotea, baiña behar da ere aski gora begiratu.
Aski gora gure harrokeria lehertzeko.
Aski gora goi-goiko ametsez hazitzeko.
Baina gu gara exkaxak, Frantses.
Gu beti eske gaude, eta beti dana den hura baino gutiagoren eske : hots, gure
lauretako askariaren opila aski, edo bururdiko xoil batez konforme gure lepo gogorraren
azpirako...
Gure Jainkoari beti bera baino gutxiago eskatzen,
guk eskatzen dugu zauriaren ahoa hitsi dadin, haren urradura munduaren zabalera
urratu beharrean idek ditzala bai bere ezpainak oihuz bezala,
idek eta urra dadila zauri gaixto hori eta utzi dezala hemengo beltz huntara bere argitik

sartzen.

Frantses Xabier :

Hunat jaustera?
Hala da bai, beldurrez nagola jausteko ni,
hortan zerbait galtzeko banu bezala!
Beldurrez ene zangoak hauts diton,
beldurrez hiltzeaz, beldurrez neure buria galtzea, beldurrez nolazpait ditudanak galtzea
bainan beldurrez estekatzeaz eta lotzeaz ere egun, bihar deus gabe geldituko nizala.
Eztaikit zer behar dutan hautatu.
Goiti ? Beheiti ? Jauzika ? Mainguka ?
Beheiti ?
Nola nuke, behera jausteko, indarririk aski ?

Inazio Loiolakoa :

Bada Norbait behereko zolarat gu baiño lehen iritsi dena, Frantses,
gu baino lehen beheko zolaraiño
eta zola zolaraiño ereman duena bere zerua
eta gure miseriaren errekarra
bere Maitasun paregabea.
Bere gurutze harekin dana eskaintzen diguna,
bere gurutze harekin helarazten du azken bururaiño
lurraren ekaldea eta sartaldea alkarri lotuz...

Frantses Xabier :

Inazio, aiherriz zuri beste zango horren hausteko.

Inazio Loiolakoa :

Ordua det. Ezinbesteko erren hunekin, banoa aratseko otoitzerat.

**III. Koroa
Atezaina**

Atezaina :

Zein aldakor den gizonaren bihotza !
Atzo « zakur karrikako xoroa » deitzen zuen hura bera, huna egun berriz « ene
Kristoren bihotzeko aita bakarra » deitzen duela Frantsesek orai.
Aitari bizia kentzea deitzen dute hori zenbaitek,
nik hemen, erran nezake izaitzekotz, aita batetik beste aita bat, edo berdin, batzu ere
piztea.
Bainan horra Frantses berriz heldu dela.
Urrats bera du eta arras bestelakoa.
Eiheran egon eta etxera laster, bi zangoetarik maingu egiten du orai,
eta Inaziok gibelerat derauka bere saindu-maindukerietan.
Hainbestenarekin, horra beste ikasle batzu ere heldu eta orai zazpi lagun dira, asteko
egunak bezala, hantxetan, Montmartreko tontorrerat doatzila 1534-eko abuztuaren 15 hortan,
denak ere Argi gose haundi bat sabelean doatzila.
Mahasti ta sagardoietan gora bai,
hortxe berriz idiak iraulden eta han
haize-errotak gariaren ehotzen ari direla,

oihal mihisearen kurutzea itzularaziz,
bainan kurutzea dea itzulikan dabilana
ala eza ote mundua ?
Egia erran, nola jakin xuxena. Zientziaren aurkikuntza berriekin ? Zazpi horiek, beti,
Galileoren dizipuluak, diote ez dela ez Kurutzea itzulikan ari,
bainan bai mundua Kurutze geldi eta xut finkatuaren inguruan itzulikatzen.
Eta huna haren alde doatzila kaperalat mendi gainari buruz,
hots, han Pariseko lehen martiren kapera,
San Denis bere paristar oroitzapen-kondaiarekin, bere burua besapean
eremaiten.
Eta huna berek beren burua ezarriko dutela aldareko pikaderan
eta hola doatzila argiaren xurgatzerat,
betiereko haren ausnartzerat,
eta beren betiereko botuak han zin-egiten dituztela.

III. Gertaldia **Frantses Xabier, Atezaina, Inazio Loiolakoa**

Frantses Xabier :

Zin eginen dituta nik botu batzu ?
Bainan nun daukat nik aho aski garbia hortako ?

Atezaina :

Egia diozu, holako galdea.
Zertako lotu botuz zure burua ?
Badabila Parisen liburu famatu bat, beihalako Martin deitu fraide batena,
Eta delako fraide ohi horrek - baitzakien berak holako baten berri - hauxe dio :
gate batzu direla erlisioso botuak Jainkoaren haurren askatasuna mugatzen dutenak.

*Eskaintzen dio Martin Luther haren liburuttoa
Sola scriptura lutheriani*

Idek hau eta ikus.

Frantsesek idekitzen du eta irakurtzen lehen orrialdean

Frantses Xabier :

Pobrezia botua.

*Batean liburuari so eta bestean atezainari, han daude so, araberako itxuretan.
Hala nola, atezaina ukurtua dago, besoak dilindan, ahurrak erdi zabalik eta bera
itxura hitsean. Noiz edo noiz eskua zabaltzen du intziri batekin.*

Inazio Loiolakoa :

Horra behartsutasun bat ez dena berez aski behartsua.
Ori, har zazu zure fortuna.

*Inaziok aurdikitzen dio bola urreztatu bat atezainak airetik bi eskuz harrapatzen
duena.*

Horra zure eskuak bahituak eta menperatuak,
berak ere menpearen menpean,
bai eta zure aurpegia ere berdin,
dirdira horrek beretua.
Izan ere, zuk urrezko bola hori hartzen dezun bezela, era berean bola horrek ere hartzen zaitu.

Inaziok egiten dio berriz hartzeko jestua eta atezainak gibelerat egiten dio, aldiro bere altzora konkortuz biribilkatzen duelarik.

Zein kezkatua zauden hori zaintzeko !
Gehiago dena, zein kezkatua horrerri eman-erazteko !
Utzi ezazu utzi zure bola eta begira :
biltzen ahal dituzu zure eskuak,
zabal ditzazkezu mundu zabalerat.
Ontasun haundiena da zure behartsu botua.

Frantsesek itzultzen du orrialdea.

Frantses Xabier :

Garbitasun botua...

Atezainak estaltzen ditu beso batez bere bularrak eta besteaz ixterrak alegia bere bertutea zaindu nahiz bezala.

Inazio Loiolakoa :

Horra garbitasun bat aski garbia eztena.
Zurikeria horrek salatzen ditu ongi zaindu behar zirenak.
Emakume eder eta amodioz sutsuan da garbitasuna.
Jarri zaite larru gorrian !

Hasten da soinekoen kentzen.

Geldi zaite ! Zer ari zera ?
Ez nintzan ez azalezko larru gorriaz mintzo
Zure anima duzu larru gorrian ezarri beharra.
Eta nundik ere baita zure anima agertzen : zure izpirituaren alde apalenetik,
zure begitarte eta eskuetatik.
Horiek agertzeko behar da oihala ezarri,
eta soineko lasaia jantzi.
Oihalak izkutatzen du zure begitartea eta soinekoak zure bihotza.
Hortan, ezkontza poligamoa baino gehiagoko batera zaitut deitzen :
hots, esposa dezazun Jainkoaren Izpiritua,
eta hola kreatura bakoitza, hartan ereiteko graziazko ereintza.
Besarkada osoarena da garbitasun botua.

Frantsesek itzultzen du beste orrialde bat.

Frantses Xabier :

Obedientzia botua.

Atezainak, Inazioaren aitzinean belaunikaturik, garbitzen dizkio oskiak.

Inazio Loiolakoa :

Horra obedientzia bat hobeto obeditu behar duena.

Zutitu zaite, agintzen dizut !

Egon zutik, esanak esan !

Zaude tente, agindua da !

Izan ni baino hobea, agintzen dizut !

Ez gero, goragoko batek behartu zaituelako. Ah, errexegi izango zen lehertu-ta menperaturik jartzea, ezerez bihurtzea, zure burua nausi bakar eta dena-ni haren esklabo, eta zeure gela nornaizni haren barruan giltzatuta egotea.

Aldiz huna norbait badatorrela zure urguluaren presondegi hartako burni-makilla haien haustera.

Horra bai norbait harek sar-araziko dizula kanpo zabaleko aire ona zu zeran gizaki mutzituaren barruan daukazun gela ito hortan.

Egon bai zuzen, itzia bezela.

Obedientzia botua zer da, askatasun osoarena ezpada ?

Frantsesek itzultzen du orrialdea bigarren aldiz.

Frantses Xabier :

Azken hitza...

Atezaina :

Hets liburu hori, otoi.

Frantses Xabier :

Azken hitza : zertako jar botuz loturik ?

Atezaina :

Zertako ez askatu eta libratu botuen bidez ?

Askatu bai, munduko esteketarik ?

Frantses Xabier :

Huna zer eginen dugun.

Atezaina :

Zer eginen duzue ?

Inazio Loiolakoa :

Munduarentzat ezin sinistekoa.

Atezaina :

Nola hori ?

Frantses Xabier - Inazio Loiolakoa (batean) :

Beste botu bat eginen dugu gainera.

Atezaina :

Beste botu bat ? Eta zoin ?

Frantses Xabier :

Botu berezia...

Inazio Loiolakoa :

Aita Sainuari obeditzekoa.

Atezaina :

Botua ?... Aita Sainuari ?

Zer zaizte ala erhotuak sinesteko Kristoren bikarioa dela Erromako apezpikua ?

Inazio Loiolakoa :

Bego hortan, eta goazen hementik.

Gazte hunek badu bakarrik egon beharra.

Bakar-Bakarrarekin.

Frantses ahuspez etzaten da besoak zabalik.

Frantses Xabier :

Nik, Frantses,

aitormen egiten dut eta hitzemaiten

pobrezia,

garbitasuna,

obedientzia,

betikotz.

Hitzemaiten dut ere emanen naizela bereziki

hartu manuen araberan

haurren eta behartsuen argitzeko zerbitzari.

Hitzemaiten dut bestalde obedientzia berezi bat

Aita Sainuari

berak emanen dauzkidan misioneendako.

II. Gertaldia

I. Agerraldia

Inazio Loiolakoa, Frantses Xabier, Atezaina

Erroman. Jesusen Konpainia sortuberriaren bulegoan.

Inazio Loiolakoa :

Etzera joango.

Rodriguez eta Bobadilla aitak aski dira, horra hango neurriko apostolu bikote on bat.

Zu berriz, hemen nahiago zaitut neure ondoan, ez naiz fio zu hain urrun joatera uzteko,

ez-eta goizegi zutaz gabetzeko.

Gogora zaite nola etorri ziñan Veneziatik Erromarat.

Ematen zendun hila bizirik,

itzal bat bai, nik hain bizkor Parisen ezagutu nuen kirolari haren aldean.

Zure anka saltariak aiton baten makil ziriak bihurtuak ziren eta bageunden etzinuela zure sasoi hura berriz ikusiko eta etziñala zu gehiago egun bakar baten lanerako gauza izango.

Venezia bai, mataleen hiria,
hantxe, zure bihotz onegiak galdu zaitu Dogo-Dukeen jauregi atze haietan,
han, ezin-sendatu diranen eritegietan.
Eztut nahi hortaratu zaiten berriz.
Zu baino hobe ditugu orai Rodriguez eta Bobadilla,
heiek, egokiagoak dira, itsasoko uretan barrena, Aita Saintuari Portugaleko Joanes hirugarrenak eskatutako misio hartara joateko,
Indietako misio harentzat.
Zu, Frantses, hemen egongo zara, sekretario
Konpainiarentzat.

Frantses Xabier :

Sekretario ? Bainan
bainan nik eginak nituen amets ederrak, aita Inazio, amets garbiak, amets argiak,
orobat geroaren aitzin-gostua zutenak.
Amets horietan ikusten nien ene buria...

Inazio Loiolakoa :

Ezagutzen det amets hori. Rodriguezek kontatua dit :
gau batez atzarrarazi duzu, oihuka : gehiago, gehiago, oraino !
Han ametsetan ikusten zenuen zure burua urrunagoko legorretan, arrisku haundien
erdian, Kristoren zerbitzuan,
eta oraindik gehiago eskatzen.

Frantses Xabier :

Eta beste amets hura...

Inazio Loiolakoa :

Ezagutzen dut hura ere, ene anaia,
aita Lainezek kontatu-ta. Atzari baitzinen bat-batean hartan ere eta hura zurekin,
eta hor, zut zuta luzatzen den gizon bat bezala eta ez soilki jeikitzen baiña hor, lanetik
sartzen eta ez loalditik, zuk saminki oihu : Jesus
zein nekatua naizen !
Bitxi da bai, lo zaude, eta nekatua atzartzen !

Frantses Xabier :

Alabainan. Ametsa nien eta hala zen, Indio pisu bat ezin eremanen bizkarrean.
Indio pisu bat bai, nik bizkarrean, hala-nola haur ttipi batek nahi dielarik zaldia
egitea, hiiika ! Haur ttipiak nahi bai kalupaka joan Jainkoaren baratze zabal haundian barna.
Nik nahi nien, bainan ezin
hain zen eta jasangaitza !
Segur niz india zela, aita, eta horrek keinu egiten zautala.

Inazio Loiolakoa :

Indio bat beraz, zuk ezin eramana,
seinalea, Indietako misioa ez tala zure bizkar ahulentzat egina.

Frantses Xabier :

Seinale eztela ez ene espalda xoilentzat, nuntzioaren soineko leguna bezala,
bainan ere espaldendako aski ontsa izanen dela Kristo Jaunaren Kurutzea bezala.

*(Kantari nolazpait :) Ez ezta ez
holako moldez
konbeni arabez !*

Inazio Loiolakoa :

Bobadilla eta Rodriguezek beste hainbeste esango luteke.
Ez naiz ni Daniel profeta zure ametsak irakurtzeko, Frantses eta Jainkoari eskerrak, ez
baitzare zu ere Nabuchodonosor,
baina ez ahal naiz ni, mirakuiluz,
zuk ezin ekarritako salbai hori,
ni bai ! Danen buru,
gure anaidia xumeak zaitu zu hautatu
sekretariotzat.

Frantses Xabier :

Sekretario... Baina
eta irrisku izigarri horiek, nik ikusiak, guzien erdian
bainindoan oihuka : Gehiago ! Gehiago !

Inazio Loiolakoa :

Sekretario izatea ezta ez
arrisku gabea. Ez, noski !
Hala balitz, iduri genduke gizon burjes hanpatua, bere burua seguru daukana, ate-
leihoak giltzaz itxi dituelakoan, lapurra ordukotz barruan daukalarik,
iduri genduke printze nausia, bere inguruan zaintzalego zorrotza ezarria duena baiña
nork zainduko du bere zaintzaleetarik ? Eta nork zainduko bere buruagandik?
Ez baita ordea bere burua baino lapur haundiagorik.
Eta beti hor daude guardian dabruak ordu hoberenaren zain,
Axerriak bat-batean oilo gizona erematen duen bezala.
Eman dezagun, harrigarria, erakustoki bat, jarleku gozoak dauzkana, han baitago
bakoitza legunki eta lasai emana, bere griña eta biziaz erabat ajolagabeturik, bere ikusgaiari
begira,
ikusgai bat oso gustokoa, bere jarleku biguinetik, gozatzen.

Frantses Xabier :

Eztut ikusten norat ari ziren.

Inazio Loiolakoa :

Berdin du. Baiña horra Frantses :
ez gaude seguru hemen, galerna batean eta gizajalez inguraturik bageunde baino
gehiago, eta baditake hobe gendukeela galernaren erdian, otoitza bakarrik aterabide, munduko
ezdeuskeriak ezin gehiago jasanez,
Jainkoa bera ahaztutzeko arriskuan gaude gogoeta txarrenak eta lizunenak gogoan,
animaren mamia bera saltzekotan.

Frantses Xabier :

Ordian ene oihia : Gehiago ! Gehiago !
Gure jar-etzangiak gozoagoturik,
eta gure apez soineko lodia legunago egitea gatik litake.

(Erdi kantari)

*Lumaki, lepoko mufle, ileki legun, gehiago !
Oinetan xapina goxoak, gehiago !
Zetaki, galtxoin guriak, gehiago !
Kalonje, gotzaiak, ez goza gehiago.*

Holako kantuen kantari joan nindaike, gaitzak oro garaitu nahiz Jaunen Jaunaren osperako !

Inazio Loiolakoa :

Bai eta hori da Kristok agindu zigun bidea : laguna maitatzea, Frantses, urrutikoak baino lehenago, hurbilekoa, lagun urkoa, eta hurbilekoaren maitasuna, hura bera eraman haruntz urrutikoari,

ez inoiz ihes egin baiña airatu.

Bestela zer probetxu du mundua irabazteak ?

Misiolari on batek badaki bere tokian egoten, bere zutoinari lotuta, hala-nola zut zutik dagoen bide seinalea, beti zuzenari eutsita erakutsiz zuzena, zuzenetik doala bide gorena,

Ez, beti aldatuz, misiolari ona ezta ez beti joan-gura batean egoten baina dei batek darabil, dei batek,

egonean egiten baita lehen misioa :

hemen bertan aurkituz Jainkoa.

Orduan sekretarioak, kosta ahala kosta, bere bihotzarekin du idazten, tinta beltza ixuriz bere odola bezela.

Frantses Xabier :

Nazaretako bizi ixila,
hogeitahamar urte ixilean bizi,
bere bizitik hogeitahamar urte,
gorde gordean,
zurginaren seme bizi xoilean,
zurginaren aprendiz,
bera zurgin soil,
taula legunt eta leguntzea misione bakar,
tenoi eta mortesaren elgarri josteko misioa,
segaren misioa,
errabote-lan ongi eginarena,
zur-lan apainduaren lana,
halakoa nun zurean baita bera landuko, zurak dazkolarik besoak zabalduko berari,
maitasunez, ama batek haurrari bezala.

Hogeitahamar urteko bizia, egunerokoa, gordean...

Inazio Loiolakoa :

Bai-eta urteak milaka betiko egunerokoan ixilik,
eguneroko zurrumurru xehe ta larrietan.

Esan zazu, Frantses.

Frantses Xabier :

Badantzut, aita Inazio.

Inazio Loiolakoa :

Zuri nago, aita Frantses. Goazen deika, ixiltasuna dagoela erantzun, hontan danak
Hitzegiten baitiote gure begiari.
Ohe hortan ?

Frantses Xabier :

Banago !

Inazio Loiolakoa :

Aulki hortan ?

Frantses Xabier :

Bai eta !

Inazio Loiolakoa :

Eta kurutzefika hortan ?

Frantses Xabier :

Baiez ba ! Banizala hortan ere !.. A !
Sekretario izaiteko misione zilarra hura, bai
ilunbeetako tinta beltzaren beltzez, argi distirantezko hitzak idatziz, heiekin
Erromako uli beltzen burrunbak abuztu betean zaintzen direnak jestu soil batez
badutelarik berek izen bat Jainkoak dakiena,
eta jartoki gozoko lo galgarridun hori Jainkoak bere esku daukana
eta ere eskua, neure eskua,
arin eta mugikor eta dantxari ari zautana, idatz eta mintza, izkiria, har, atxik, aira, jo,
beneika, josta,
eta kontsekra,
esku hau, neurea, firurikan, Jainkoak daki nola,
eta beso hau, buru hau, enea eta ez nik egina,
gorputz hau ez nihauk landua, trebea, beste batek trebaturik, eta nihaurk, hots,
sinesgabe erromes itzuli behar banu ere, nik orduan aitortu beharko beste batek duela
moldatua eta hezia, Jainkoak daki nola,
ai hori bai betiko ustegabea eta beti harrigarriki egonen dena !
Eta nik hemen dudan hori zertako behar nuke hantxetan bilatu eta jasan ? Eta hemen
ez baditake hatxeman, nolaz ez ginezake aurki han, gu ez gauden lekian ?
Hemen da hemen denetan, denetan, eta ez da hura nehorat faltatzen, gu gira faltatzen
girenak,
gu gira hemengo haren aldetik faltatiak, hura delarik hemen ororen kreatzen,
moldatzen eta kudeatzen ari.
Harrigarria bai,
harrigarria hori, segetario izaitea,
zinez harrigarria dena.

Inazio Loiolakoa :

Zure ametsak ahaztu dituzu ?

Frantses Xabier :

Sekretario, segetario hortan, bada segeretu, bada...
sekretu.

Inazio Loiolakoa :

Eta Indio,
Indio hura hain pisua ! Ala ni nintzan hura ?

Frantses Xabier :

Hura zu zinen eta ni nintzan,
bainan idazteko tinta ilunagoa izanen da indio hura baino,
eta nik dudan idazteko luma hau, egia erran, ezta deus izanen luma hau baino pisu
haundiagokorik.

A ! Lumaren misioea, hura bai Indietako misioea bezain ederra. Bai, dohatsu nizala
ni, Inazio, dohatsu.

Bainan behar dut joan ene haurren katekesiarat, Saint Louis des Français hartarat.
Gero arte, ene aita.

Inazio Loiolakoa :

Gero arte, Frantses...

Badoalarik oihal gibelerat, Frantsesek xaramelatzen du, xoramendu betean :

Frantses Xabier :

Sekretario... Sekretario.

Urrunean Anjelusa entzuten da. Atea jotzen dute.

Inazio Loiolakoa :

Aurrera.

Atezaina sartzen da.

Zer da ba, aingeru maitea ?

Atezaina :

Eskutitz bat zuretzat, Inazio jauna. Bainan ez uste izan. Enaiz Gabriel aingerua.

Inazio Loiolakoa :

Mandatu guziak zerutikakoak dira.

Eta mandatariak berdin, noski. Eskerrak. Joan zaitezke. Ez. Zaude pittin bat.

Erantzun bat behar bada.

Aita Frantses behar didazu deitu,

gure sekretarioa da, harek du erantzuna behar, otoi, mugi zaite...

Ateratzen da atezaina, Frantses laster heldu da.

Frantses Xabier :

Deit arazi nuzu, aita ? Hitz bat berehala idazteko ?

Inazio Loiolakoa :

Bai, orain bertan idaztekoa.

Frantses Xabier :

Epe labur bat, tinta, luma eta paperaren ekartzeko doia ?

Inazio Loiolakoa :

Ezta nahikoa, Frantses, hitz bat da zure animarekin idaztekoa.
Zure bihotzaren lumarekin.

Frantses Xabier :

Bai, bai, badakit hola egiten duela segetario batek,

hori egiten du papera, luma eta tintarekin.

Inazio Loiolakoa :

Eztezu ondo ulertu. Bobadilla eri gaixo dago. Eztauka joaterik. Zuk hartu behar dezu haren tokia
hobeto esateko, zure tokia.
Bildu itzazu zure hartzekoak. Bihar joango zera zure itsasontzia Lisboan hartzeko.
Zer diozu ?

Frantses Xabier :

Aitzina beraz, ene aita. Hemen nago. Bainan...
Atseginez nindagon, segetario...

Inazio Loiolakoa :

Hobe ! Hori behar da zu zoatzin tokirat joateko.

I. Koroa Atezaina eta co.

Santiago untzia, Lisboako hiru-mastakoa, Indietarat abian. Atezaina kantari besteekin teatroko taulagaina aldatzean. Oheko mihise bat heda ditake bela orde. (Hemen jokolariek hautatzen duzue 2 kantu hauetarik bat. Jakinez itzultzalearen prefeentzia « Nola lehenik Elkano » rentzat dela.)

(Airea ikusten duzu goizean)

(Airea Boga boga)

I

I

Nola lehenik Elkano

Elkanoko Santiago, Santiago

Frantsesekin Santiago

Lisboan gaindi haruntzago, haruntzago

Zabal haundirat so dago

Jo Indietara, jo Indietara

Begia xorrotx, bihotzez bero

Uhain beltzak jo eta jo

Lagunak dira hemengo

Bihar Indian izango

Han oro dira urrezko.

2

Hemen uhainen erdian

Galerna bortitz beltzean

Zaitut ama bihotzean

Utzi zintudan musu batekin

Nigar hipaka etxean

Bainan ez naiz gabezian

Badut hemen otoitzean

Ama Maria menean

3

Santiagok tu ereman

Mariñel eta tratulant

Beren biziko lilluran

Bainan nor ote fida ditake

Aro ederren itxuran

Kristaua zu, esperantzian

Egun hemen ta bihar han

Zoaz Jaunaren menturan.

Gogor zainduz lema

Hauts ez dadila

Jauna gure zain da, gure zain da

Hel, hel bururaino Santiago.

2

Santiago nori fida, nori fida

Hor du berekin lemazaina, lemazaina

Ororen bizia haren eskutan da

Ernerik begia

Hark ez balauka

Etortzen delarik uhain gaitza

Itsasoari zu, Jauna, mintza

3

Mariñelek noiz eztute itsasoan

Gudu bortitz bat behar jasan, behar jasan

Galerna piztean, galerna piztean

Zeruari, aupa !

Dei egitean

Beti Goiko hartan, Goiko hartan

Eman fidantzian doaz kantan

II. Agerraldia

Frantses Xabier, Kosme Saraiva.

Kosme Saraiva :

Lehen itsasaldia duzu ?

Ageri da. Eskua ernea duzu, zangoa ez ordea itsasokoa.

Arimen medikua zu ?

Ikusia zaitut Lisboako ospitalean, dena otoitza bar-bar-bar, eliza batetik bestera, ulia bezain aferatua zinabiltzala, erle baliosaren pare, hezur eta haunditsu gaizkondu heien artean zure ezitia hantxet egin beharrez bezala,

horren ezitia bihotz onaren ezitia da. Ni aldiz, gorputzen medikua naiz.

Zer gatik zaude hemen zubi gain huntako mariñel artean erretzen eta beti zola ito huntan ?

Zertako ez joan atsedean hartzerat, zure gela han duzularik Martin -Alfonso Suzatar Indietako erregeordearen aldean ?

Hemen eztuzu iraunen,

Berdatua gizona.

Frantses badoa presaka goiti botatzera.

Enuen beste beldurrik.

Bota, bota larrienak, ene Aita, eta aurtik zure haurkeria ausarta ere horiekin...

hola ikasten da zentzutzen.

Ala erranen dautazuia Jainkoaren osperako duzula goiti botatzen ?

Frantsesek goititzen du burua bainan berriz hasten da goitika.

Kosme Saraiva :

Eta erranen didazu ere hola jakitzen duzula zuk Apokalipzako hitz hau :

« Etzarelakotz ez hotz ez bero,

epela zarelakotz, hots,

nere ahotik aurtikiren zaitut. » Ez dea hala ?

Ez, holako moldez, ez naiz batere fida Goako porturako zarela zu, Aita.

Ai zer ikarak ahal dituzten Indiako debruek, holako ttakala bat ikustearekin heldu !

Koro II**Gaizotoa, Atezaina.****Gaizotoa :**

Jaunak, andereak, zuen epaigoaren beharretan naiz,

bainan eskerrak dizkiot lehenik bati, zeren digun - hainbertze eginbideren artetik-

hitzaldia eman, guri, jende errefus, haizatu, baztertueri,

hortxetan aldiz auzia bere duelarik beste ezdeus horrek bere hertzeak ezin hustuz ari baita, den bezalako arno zakua !

Guk bederen badakigu ontsa gobernatzen, eta ez gaitu itsas-gaitzak aurdikitzen, gu !

Errefusak gu ? Ez segur ! Bainan trebatuak, funski ohituak, heziak sortzetik, alta ez gaituelarik nehork hezi, egundaino.

Bizi guziko iraultzan ere Etsaiaren aurka gabiltzanak, gu !

Nork du gutaz erraitekorik ! humanistak bai hitz batez, gizakia hunen gizatzaileak, erran behar-eta !

Guk gizatasun egiazkoaren bidean ezartzen dugu gizon bakotxa, berez bere eta ahal haundiz, bere baitan duen halakotasunez, eta nehongo Etsaiaren eskukaldirik gabe, bera bere buruaren egile.

Eta zer gatik ez ote ?

Zer gatik eta nolaz alabainan ez ote luke gizon bakotxak (eta emazte soilak halaber, nundik ez ?) ez ote luke zuzenik, bere buruaren itxura eta izana berak moldatzeko eta bera bere jabe egoiteko. Artista deitzen da holakoa, gizon ala emazte.

Eta berak holako hautua eginik zer debru !

Denborak ditu bai gure gudu horrek eta nola ! gu bermatzen garela, errespetu dadin orotan gizonaren zuzen hori baitezpada. Han bai, sagar onen zuhaitzaren aldean aldarrikatu ginuen hortaz Gizonaren zuzenen zerrenda, hau eginez lehen artikulua :

Gizon guziak sortzen eta gelditzen direla libro eta berdinak Jainkoaren aurrean.

Hortakotz nitzaio jazartzen gure kontrako oldarrez zabaldua den guduxka txarrari eta jazartzen nitzaio ni Indio erromes guzien izenean !

Frantses Xabiereko horri, aski zuela Xabieren egoitea.

Ez ote zuen han bere graduko parada on batenik egiten ahal eta han berean sanoki sosegatu bere burua ?

Egia da bai, ez dela hori, oraingoan, itsas-gaineko tita beltz batez besterik, Afrika inguratuz arrauka heldu dena,

Bainan sumatua dugu bai, gaizkile hori hunarako bidean bere arimatto usain- oneztatuarekin eta badakigu orotan utzi dituela bere herrestoak :

Madrasen, Krishmaren itxura erori da muturka mila pusketan hautsirik !

Gange ibaiaren hegiko tenplo batean, Ganeshek galdu zuen bere turruta eta xirula harekin batean !

Kondu eman alabainan : holako idoloak beren lekua izan zezaketenak orobat mundu zabaleko gizaki-ondarearen erakustokietan.

Bainan bada oraino besterik ez dakizuena : han, Brahmaputreko ibaiaren bokalean, Shivaren eskultura xoragarri hura,

besoak galdurik dago. Biga baizik ez dauka orai !

Erradazue bada : zer egin bi besorekin ? Ala beharko ote ditu zabaldu, ezinbertzez, hortxetako beste horrek bezala, oihalaren gibelean baita,

Etsaiaren Semea ?

Eta, azkenik, erakuts nezazketzu gure datorren urteko aitzin-kontuak, nola doazkigun aferak oro buruz-behera joanden maiatzaz geroz, orduan baitzen Frantses Indiaratu !

Zer behar dugu ikusi ? Erreka zolara doa gure herria.

Ez ote litzaiguke laguntza zerbait emaiten ahal ?

Subentzio zerbait guri igorritz ?

Ikaran nago, andereak, ikaran, jaunak. Fama du maite duela amodio bereziz neskak bat, Maria Birjina. Gu segurik beldurtuak gaude, ikusten duzue ?

Zerbait egin behar da !

Atezaina :

Gizagaizoa, ageri duzu sehi ezjakin bat zirela.

Zure aitzin-kontuak eztira xuxenak.

Zer uste duzu ala herri bat legez konbertituz, gaitzak oro joanak dituela ?

Eta zure diru-kontuak horrek tturrinduko dituela ?

Behazu Europari.

Beha Portugalari eta portugesez meneratzen dituzten tratularieri,
aski dituzte salerospen tratu-moldeak bestelakatzea,
igorriko dizkitzugu afera-gizonak, hortakoak direnak.

Gaizotoa :

Bainan fagoreño bat, otoi !
Eztautzut ez fortunarik eskatzen, fagore bat soil soilik.
Hauxe bai : ez ginukea galernatto bat asmatzen ahal Santiagoren gainerat ? Ttipiño
bat, doi doia...

Atezaina :

Bai, areagoa, eta haundiagoa ere egin dezakezue.

Gaizotoa :

Zer ? Galerna haundi bat ?

Atezaina :

Ez. Itsaso ezti eta bare barea.

III. Agerraldia

Frantses Xabier, Kosme Saraiva

*Berriz ere Santiagoren gainean, Frantses ahuspez etzana, sukar haundi batek joa,
erdi-lo. Te Deumen hitzak murmurikatuz.*

Kosme Saraiva :

Berrogei ta bat egun.
Berrogei ta bat egun hemen gaudela Gineako leihorraren zabalean, gure masta hau
eliza-dorrea bezain geldirik,
belak ere malet daude, dilingo eroriak, urkatu batzu iduri,
eta behereko zolan kila gorbeltan, kasik erroak han eginik,
untziaren pea itorik dago itsaso eztiaren horma barnean, huntan dirdira egiten duela
iguzkiak...

Frantses Xabier :

... Te Deum Laudamus...

Kosme Saraiva :

Hobekituko zara, ene Aita, sangaratzen zaitut, hobekituko zara.
Hiru ehun mariñel,
zazpi ehun pasaient, itsasgaineko zinarrozki igerikari huntan, oro portugez Indietarat
bere diru ametsekin joaki,
eta horra berrogei egun hor daudela geldirik nehongo ezten gune horren erdian,
paretarik gabeko penitentziategi, mugagabeko eremuan preso halere,
eta altzeiruzko itsasoan begitarteak sekailtzen ikusiz
aldiz zintzur idorretik sabelera berinaki zorrotzak bezala,
eta gataska merke edateko baso bat urentzat, den hau ere itsas zabaleko ur erretzailea,
dohakabeek elgar ito bailezakete ogi kasko baten gatik, alta ur barne hoik

dituztelarik jateko arrainkiak igeri,
eta hor aro ederregiak du hiltzen gizona.

Hainbeste bada sukarrarekin etzanik, edo izenik ez duten eritasunpean. Bakarrenak hil dira, ez dituenak nehork ehortziko ere.

Atzo bezain berri, eskipaia osoa harritzen zuela, mariñel bat iguzkiaren argi erre harek erhoturik, zubi gainean zabilan oihuka : Aurtik, aurtik aingura ! Aitzina gaitezen, aitzina ! Holaxe zoan batetik bestera, bat besotik harrapa, eta besteari oihu : aurtik, aurtik aingura ! Azkenean, bere erhotuan, itsasorat jauzi egin du.

Han sartu zaio gorputza, plomu zaku bat bezala,

Plau bat egiteko epean,

ez-eta uhain bat ere egin gabe.

Doi-doia uraren ingurutto bat izan da, besterik ez, tuntik ere besterik.

Frantses Xabier :

...aperuisti credentibus regna cælorum...

Kosme Saraiva :

Holaxet, Aita.

Bosgarren aldiz, sangaritzen zaitut. Hola hobekituko zara.

Gisa guziz, berak bilatua du. Hola behar baitzuen perrekeria horrekin partekatu bere jateko doiño hura ?

Zer zuen egiteko hemengo etsitu horien beilatzen ?

Bera mezaren emaitako ere ez on izaki-ta !

Jendea hor zuen metatua ostia goititzen zuelarik argi haste hartan.

Bainan oro har, metatuak zauden, ogi porroska baten ukaiteko kulisean.

Ogi porroska bat gehiago eta zer munta du porroska hori Jainkoa izanik ere, ogiaren gustua duen ber, barneko gosea hausten duen ber, eta mihia ahogozoz hezitzen ogiaren gustuarekin !

Beharrena , mirakulua baino haundiagoa, etzena jateko izpi haren karruskagailu gozoa !

Frantses Xabier :

... salvum fac populum tuum domine...

Kosme Saraiva :

Ongi duzu, Aita. Sangaritzen zaitut. Ni naiz zure sangaratzaila.

Bego hola... edo ez, ez ! Ez dugu hortan ere, eta debruak ereman dezala !

Nik ote dakit, funtsera-ta, zer probetxu duen zure sangaratzeak, zerri bat bezala ?

Haatik ikusi dut zerbait zure behakoan, ahantziko eztudana,

hor, zure begitartean, irriño hortan ikusi dudana, iduri-ta zure hortzek ausiki nahi ukan baliote bezala zorionari,

iduri-ta badela bai zure pidaia hortan beste pidaia bat, zure itsasuntzian beste itsasuntzi bat,

eta Goarat helduko eztirenak,

heltzen direla halere,

heltzen ere gu baino hobeki orobat,

heltzen bai egiazko portu onerat, azken porturat,

heltzen egiazki, ez badute bederen mespretxuz uzten zuk eskaintzen diezun eskua,

zurea ezten eskua,

zuk ateratzen baituzu bekatua bala bat zilotik bezala,

eta sartzen barkamendua ezpata bezala.

Erematen zaitut ene gelarat, Aita, han itxainak frogatuko ditut zure gainean, itxainak bai, odol-iresle paregabeak, orain arte nauzkanak...

Erregeordearentzat.

III. Koroa

Atezaina (Iñez eta Luxia).

Goa, Indietako portugesez kolonian. Atezaina sartzen da, Iñez eta Luxia bi julufraiekin. Sahetzerat uzkaile ohe batek egin dezake antzokia.

Luxia :

Bai, Iñez maitea, bazinaki zer atsegina dudan zu hemen hartzea, hamar ilabete gure Goako kolonia portugesean pasa ondoan !

Eta... zer erran zure soineko eder hortaz ? Arras egokia duzula.

Iñez :

Alta zure hori ere bai Luxia, zure hori ere zinez ! Ikusi zintudan hirian, Andramari Aingeruetakoaren ondo ondoan !

Bainan zure eremaileak eneak baino zaluago zoatzin, eta ezin harrapatu izan zaitut gibeletik.

Suerte txarra dugu gure aldetik. Zure eremaileak ditazke nereak baino hobeki asetzen.

Luxia :

Ez, ez ! Gaixo Iñez, ez uste izan ene eremaileak hobeki asetzen direla, nihauk ditut jan-edanak mugatu.

Ene andere pisuan nago dudan ohantzearekin eta Madalena gaztea baino zaluago noa. Bainan konda zaidazu zer gertatu den ene faltatze luze horren artean.

Iñez :

Batetik, izan ginuen gure nuntzio berriaren etortzea, hori den nafartar bringo, bikaina ! Horren izena Frantses, bainan ez da frantzizkotar anaidikoa.

Luxia :

Ikusi zinuen untzitik leihorreatzean ? Jauntzi xingoladun ederrez bezti zena ? Gure Europari ohore egiten baitiote eta hemengotarrak hainbertze lilluratzen dituztela ?

Iñez :

Ah, Luxia gaixoa, ikusi bazinu haren apez-jauntzi histu eta jan hura ?

Luxia :

Baia ?

Iñez :

Segurki ! Baziren, alabainan, ordezkariak nuntzio berriari ongi-etorria egitera jinak. Ahal den fraidetxo bat zuten jausten ikusi, soinekoak higitu bat gainetik emana, eta hura ere ukondoetan legunduraz kasik urratua, aldean bertze argia ageri, higaduraren bortxaz.

Ordezkaritzakoek galdegin zioten : Ba ote duzu nuntzioaren berririk ? Ikusi duzu hor

gaindi ?

Harek ezetz. Etzuela ikusi. Bainan zuek ikusten duzue orai berean buruz-buru.

Luxia :

Ha ! Ha ! Ha ! Buruz buru ! Ha ! Ha ! Ha !

Iñez :

Pentsa heien harritzea ! Etzirena gibelkatu, ezin sinetsiz !

Luxia :

Haatik, geroxago, joan zena apezpiku jauregiko jauregirat ?

Iñez :

Ez-eta, etzela segituko ere, gaixo Luxia !

Ereman nezazue ospitalerat lehenik, hori zeien erran.

Zer zira eri ? besteek.

Horixe bai, hein batean, adiskideak, harek irriño batekin. Ezen erraiten badautzu et ez nizala eri, badut ustea ziek nauziela arras eri hatxemanen.

Luxia :

Bainan errana zinautan bringo eta bikaina zela gizona...

Zertaz ari zinen bada, ezpadu ez soineko ederrik ez-eta bere graduaren axola izpirik ?

Iñez :

Haatik gizon pollita bai.

Badu grazia bat, gaixoa, berez egiazko lillura.

Nor ezta joanen lorietan horrekin kofesatzera ! Bi aldiz izana naiz ni deiadanik.

Bazinaki, Luxia gaixoa, nolako lorian errepikatzen nizkion ene bekatu ttipiak, eta zein goxoki ixurtzen zitzaizkidan nigar malkoak, diamanta pikor batzu iduri...

Hori baita holako gizon gisari eskaingarri den apaindura.

Luxia :

Ai, Iñez gaixoa, eni ere emaiten dautazu berehala kofesatzera joaiteko emaita !

Iñez :

Ez holakorik pentsa, ene Luxia.

Luxia :

Ze ? beldur zira zure lekua har dezadan haren kofesategiko bektorosetan ?

Ala ikaran zaude, ene aitormenak zureak baino hunkigarriagoak izanen direla, edo ene nigar malkoak zureak baino ddirddiragoak ?

Iñez :

Polliki, Luxia, ez ahal da nehoiz holako jelosgorik izan gu bien artean !

Haatik, nuntzio pollit horrek badu ilabeteaz goiti, joana dela.

Hor dabila laurazkan, hunara jinez geroztik : eri bisitak, presuneren sokorritzeak, solas kartsuak ostatuetan ase beteak daudeneri, elkarrizketak Brahma sinestekoekin, Santa Fe Ikastetxeko etxe-berritzeak...

Den tenorean, Comorin puntarat joana da, gure perla ihiztari balios Paravertarretarat.

Katekesiatzen ditu salbai horiek oro, heien sortzeko mintzaira barbaroa marruskatuz, bataiatzen ditu herri osoka,

ondarrekotz besoa ezin gehiago goititzeraino, aitarenka, kurutzearen seinale egitearen

bortxaz eta buru gainetan ur ixurka.

Uste dut ere bere burua xahu lezakeela dohakabe horien fagoretan.

Luxia :

Hola ariz baginuzke guk ere erresak zeruan, Iñez gaixoa.

Paraver horien girixtinotzea, zer irabazi ederra litakeen, Lusitaniako gure Erreinuarentzat !

Iñez :

Hala duzu, gaixo Luxia. Grazia handia holako konbertitzeak.

Paraver horiek zerbitzu-eginak izanen dira gure alderat, hots goxoagoak.

Nik ere eremaileeri aipatzen diedalarik egun baten barura, erasian ari dira goseak dauzkadala ! Ez ordea, etzauzkatet goseak, amoina bai, egiten dautzuet, amoina bat bildoski erre gozo bat baino hobea, zeren beste apairu bat baita zuen arimarentzat, barura.

Horien barnea elkor dago goragoko solas horientzat. Errepikatzen deiet, bainan eztute konprenitzen.

Paravertarrek ulertuko dute.

Luxia :

Eta gero, merkeago salduko dauzkute beren perlak.

Bai, zinez horien fedea gorago eta perla sariak merkeagotuko dira eta nork daki ez ote ditugun batzu kitorik ukanen.

Iñez :

Ez hola mintza, gaixo Luxia.

Gu entzuten gaituztenek, ez lukete uste izan behar herri hortako jende xumeaz baliatu beharrez ari girela, ebanjelioaren aitzakian.

Luxia :

Urrun daudela urrun gutarik holako gogoetak !

Ez baiginuke nahi nehor gutaz baliatzea, ez dugu ez guk ere heietaz baliatu behar !

Egiaz, egiaz, Iñez gaixoa, zure zaia horri behatuago eta zuretzat egokiagoa dela daukat zinez. Zoin ongi johan zaitzun !

Andere gelariak alde egiten dio Luxiari eta gogoetatua dago bere eskuari so.

IV. Agerraldia

Frantses Xabier, Rafael Paraver

Comorin punta aldean, ttattola batean, Frantses eskutitz baten idazten ari, oheari bizkarrez.

Frantses Xabier :

Ene Aita maiteak,
Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta amodioa ditela beti zuen sokorri. Amen.
Huna hiru urte hurbil Lisboa utzi niela, urte bat eterdi Indietan nizala, urte bat pasa Comorin puntako arrantzaleen erdian berma eta berma.

Hauen kuraia etsenplu bekit.
Hok perla arrantzatik bizi dira probetxu xuhurra eginez beren komertsioan,
portugesekin batetik eta ondo hotako indiar printze batzuekin.
Egunero urperat pulunpatzen dira ostra ihizin eta ganibet xoil bat eskian itsas-zakur marrazoetarik beiratzeko.

Izan dira gizon horietarik batzu janak ere. Beste batzu itoak. Oro hats-bahitzeen bortxaz bularretarik galdiak dira.

Horra nola gizon horien odola gostaiak dituzien zien etxeko-alaba aberatsen lepoan ikusiko dituzien jojeriak.

Ni aldiz ekartzen dietan parabolaren perla paregabearekin jina niz horien arterat, eta nik enezake horiek bezala eman ene buria, emaiteko dutan perla paregabearentzat.

Ez, ez niz ni horien parekoa holako perlarik baliosena ekartzen-eta.

Gure ahaleen arabera itzuli ditugu latinezko otoitzak malabar mintzaiara, hori baitute beren sortzeko mintzaia eta hitz dautziet ez dela holako musika miresgarririk nola Ave Mariak malabarrez erraitea ber horiekin.

Herrietan ibiltzen niz xilintxa bat eskian, harekin bilduz ahal guziak, haur eta jende heldu, eta nihaur ari niz zintzurra larruturik gogoz errepikatuz ezagutzen ez tudan mintzaira hartan otoitzak, kredoak eta manamendiak.

Indianoen lerrokadan, mailik apalenean dira : erakasten deiet Jainkoa bera jautsi dela oraino beherago heien bilatzera,

Gorputz bat hartu diela gu giren ezin-hunkien hunkitzea gatik berak,
eta errotik gudukatzen niz horien zaintzeko indiano ala portuges harraparien gosetik.

Damurik halere langile bakar batzutakoa bainiz ni hemengo uzta nasaian eta beldurrez nago ogiburiak ustel ditenean lurrean gure hobenez.

Frangotan, gogoak emaiten daut zien aldeko eskoletarat joaiteko nahia, oihera eta oihera egiteko ene ahal guziez, zentzia galdu dien gizon baten pare, Pariseko Unibertsitateko bereziki.

Nahi nuke dei egin Sorbonan, borondate baino jakitate gehiago duten batzuri : zenbat arima den goiko ospareen bidea hutsegiten dutenik gure ezazolkeriaz !

Gogoetak egizkitzie bai, nolako kondiak galdeginen dauzkitzien Jainkoak zien barneko gogoeta minenez,

konpreni bai zien jakitateak hobira deramala, zien erakatsalkiaren zur berean egiten direla zien hil-kutxak eta jakitate ederrena pitsik eztela lorerik ekartzen ez tien zientzia jakintsuna...

Sartzen da Rafael Paraver, gutun bat eskuan.

Rafael :

Aita Frantses, gutuna zuretzat,
gutuna zuretzat, Aita Frantses.

Frantses Xabier :

Egun on, Rafael.

Atseginez ikusten zitut, adixkidea. Nola dituzu burrasoak ?

Rafael :

Atsegina nik dut, Aita

Nik bai.

Ongia, Aita, zuk egin ongi ainitz gure herriari, gure familiari.

Frantses Xabier :

Ez ! Nik neurez, eztakit gaizkiaren egiten baizik.

Bainan Jaunak badaki hodi herdoilen baliatzen ur biziaren pasagailu.

Rafael :

Zu, aita, ez hodia, ez erreka, zu aska, aska.

Ura pasatzen, askaren gainetik ixurtzen ura.

Frantses Xabier :

Zuk duzu zure onean aska ikusten ni nizan arimen pasagailu txar huntan.

Goazen beraz. Goazen zuk ekarri mezu hau irakur.

Aita Mansilhasena da.

Frantsesek erdi-apal irakurtzen ditu Rafaellek ekarri gutunaren puskak, Rafaellek guti

konprenituz.

Badagastarrek herri osoak arrobotu eta erre dituztela.

Emazteak paretari kontra bortxatiak, girixtinoak bereziki.

Gizonak eta haurrak aihotz ukaldika hilak eta haurren buriak haundien bizkarretik dilingo.

Gure bataiatu berriak ihesari emanak, ondikotz brahmatiarrak haizatiak eta koloniatzaileen gerizarik gabe utziak,

Don Fernando Paiva kapitainak batasun egin du gure jazarleekin, podore eta diru interesen gatik.

Rafael :

Berri ona, Aita Frantses ?

Frantses Xabier :

Beste neskaxa batzu bahitu eta saldu dituzte esklabo Portuges aitzindari horren tokeroek, baizik-eta indianoetarik direla oraino eta eztirela konbertitu.

Rafael :

Berri ona, ez ?

Frantses gu gana etorri geroz

Jainkoa gurekin.

Frantses Xabier :

Post scriptum : Rafael berrikerariak deusik ez daki egitate hotaz, berri hok ekartzean.

Alta, badira horren herrian hilak, edo gehienak ihesi, zenbaitek uko egina fedeari,

ikusiz konbertitzeak ez deiela Europako boteredunen sustengurik segurtatzen,

edo ere, jakinik Katoliko-on Erregearen gizonak ez dutela Keralako erregearen

mandreneriari zorrik batere beren egintza gaixtoetan.

Hots, badakit Erregearen arreba, pagano gelditia, bahitu zutela eta inkantean saldu herrian.

Erna zite, Frantses, erna eta berma.

Rafael :

Beraz ? Berri ona ?

Frantses Xabier :

Ez, Rafael, ez.

Rafael :

Eza ? Eza ?

Bai, Berri Ona.

Frantses gurekin.

Jainkoa gurekin.

Frantses Xabier :

Gizon egina. Jainkoa gizon egina,
eta gure ikuriña kurutzea, kurutzea bakarrik.

Rafael :

Berri ona beraz.

Jainkoa jautsi gizona goratzeko,

eta gizona jautsi ta ere,

berri ona,

Jainkoa ere jautsi-ta

Berri Ona, Ebanjelioa.

Frantses Xabier :

Ez, Rafael, berri txarra !

Lurrak hutsegiten baitaut ene zangopean, Jauna, eta bixta lanbrotzen baitzait gizon xoratiari bezala, gau betean atzartzen delarik, gehiago ezagutzen ez dien bere ganbaran eta ohartzen delarik, itsumandoka, ingurian dien huts guneaz, eta ohartzen, bera lo zagoen artean, ez direla ez ohoiak lo egon, ez,

debria ezta lokartzen.

Igorri nuzu, igorri Ebanjelioko Berri Txarraren gaztigatzerat.

Rafael :

Ez ! Berri Ona, Aita Frantses, Ebanjelioa Berri-Ona !...

Frantses Xabier :

Berri On Ona, zinez, bainan hiruetan txarra.

Lehenik, jina nintzan, zure Oneziaren Berri emaiterat, Jauna,

bainan, zure Oneziaren berri emaita, hori da ere erakustea pobre hoieri beren miseriak,

zure Onezia neurrigabea argitaratzea, Jauna, hori da ere heien txarkeria paregabeen agertzea.

Lehenago bederen, etzezaketen jakin noraino ziren bekatoros, noraino joak ziren hastapeneko zauri hartaz, beren arimaren muinetaraino joak.

Berri txarra da bai zinez gure urguliarentzat, onezia paregabe hura eta zinez ezin-iretsia,
Ezin sinetsia bai uzten den ostia hura.

Rafael :

Ona, Ona, Ona, Berri Ona.

Frantses Xabier :

Txarra, txarra bigarren aldikotz, Jauna,
zeren jina bainintzan jakinaraztera, bide egin behar dugula guk Seme haren ondotik,
hura den pairamenetako zerbitzaria,
bide egin behar guk ere, berrogei urtez basamortu hartan barna, eta ere hamalau estazione hek, Golgotako goreneraino,
bide egin, bainan, erorka, behin, bietan, hiruetan Kristoren ondotik...
Bai, egia, zure begi amultsiak ez ditiela behartsiak ahanzten eta lasterbide batzu urratu ditiela heientzat.

Horra nun diren jadanik, hiltegirat eremaiten diren ardien pare,
horra horiek ere martirekin kanta dezaketela : « *Atzar zaite, atzar ! Zertako lo egon ? Zure gatik ditugu guk hiltzaleak beti ondotik !* »

Rafael :

Aita Frantses, zu ona !
Jainkoa jautsi,
Jesus gurekin,
Egia ? Eza egia ?

Frantses Xabier :

Egia, Rafael, ezinago egia, eta horra hirugarren berri txarra, horra bai.
Jina nintzan zieri Parabisuko ateen zabaltzera bainan orobat,
meneratzen neien, idekitzen barne ilunerat kondenatiak direnen leizearen ahoa.
Ziek giristino egiten zinezten, bainan ze probetxu, zien lehertzaile portugese horiek iduri bilakatzeko bazen ?

Ze probetxu ote, hoik ere ondarrean izen hortaz faltsuki jabetzeko balinbazen ?
Zeren, jakizu, giristino tzar bat oro baino areago da,
hala-nola korotz zikin bat langile arruntaren galtzetan baino beltzago baita lehen kominiantaren arropa xurian, halaber bekatia haundiago da giristinoaren ariman, zeren argi betean ari baita hura eta Elizaren begitartea baitu iluntzen.

Hobeko zien harek ez balu ezagutu zuzentasunaren bidea.

Entzuten, Rafael ? Hobeko zien...

Eta horra nola duten zenbaitek arnegatzen eta berak areago bilakatzen ni naizela bide !

Bainan ez niena nik areagoaren eta hobearren irrisku hori hartu behar huts edo kausi ?
Ez ote neien ekarri behar argia, ilunak ilunagotzen eta berexagotzen ditiena ?
Berri Ona, hala da Rafael, Berri Ona hobea dela ez da dudarik.
Hau da Jaunaren gomendioa : *Zoazte mundu guzian barna, zabal Berri Ona herri guzietan gaindi.*

Gomendioa, bainan...

Bainan diozu ere, Kristo, diozu beste nunbait - eta ezta i bat ere farisaueri eman setentzia hortarik aldatzekorik - hau baitiozu :

Zoritxarrekoak zuek,

*itsaso-lurrak iragaiten baitituzue aldean bertze,
bakar baten konbertitzeko,
eta hori ardietsi ondoan,
gehenarako gai egiten duzue gizon hura,
zuek baino bietan areago !*

Ai, Jauna, zer probetxu du beraz mundiaz jabetzeak ?
Ze balio mundiaren irabazteak, baldin eta arimak bietan areagoak bilakatzekotz,
bietan kondenagaiago ?
Frantses Rafaelen alderat itzultzen eta hau gibelka.

Frantses Xabier :

Baditake sarri begitan hartuko nuzun, nik maitasuna predikatu sari, begitan hartuko bai, zure baitan nehoiz izan ezten bezalako herrarekin.

Ez ! Ez beldur izan Rafael. Badut oraino beste berririk zuretzat. Agian, oxala, hartuko dituzu berri izigarri horiek, Ona hartu duzun bezala Jainkoak emaiten dien indarrarekin, agian...

bainan ez dezagun denborarik gal, zeren badugun beste bat lo eztagoena.
Jainkoa gurekin, kurutzefikatu zutena gurekin
nehoiz ez bezala.

III. Gertaldia

I. Koroa

Frantses Xabier, Atezaina, Gaizotoa

*Kapera bat Meliapour eko San Tomen, Madrasko ondoan. Frantses belauniko dago otoitz ixilean ohe aitzinean, hunek Tomas Didimoren hobia seinalatzen duelarik. Gaizotoa berriz haren espalden gainean finkatua. Frantses bereari, ez hartaz ez atezainaz axolatu gabe,
hor ez balire bezala.*

Atezaina :

Hau haatik ? Hire diru-kontuak goiti doatzik ederki.
Ez ahal zaik itsusi, ene ustez.

Gaizotoa :

Ez itsusi, ez ez, arrazoinekin.
Bainan ez haatik ase batenik ere.

Atezaina :

Eta zer gatik ote ?
Eztuka Indioaren karga guzia horren espalden gainean ezarri heure ametsean baino areago ?

Gaizotoa :

Eman dezagun ba.
Bainan badut beldurra pisu jokatueta bezala dela : nik neurea zapatuago, eta hura

hanbatez gorago joaki.

Atezaina :

Hor haatik etzirezte entralean jokatu.

Gaizotoa :

Batean birauka hastekotan ikusi dut, birauka,
bere burua salbatzetik piru batetan,
etsaiari hiruetan uko egitetik tintta batetan.
Berri txarra, ongi asmatu bezala !
Bainan horren solasaren funtsa, lotsagarria.

Atezaina :

Bisita bat egiten du halere Meliapour en San Tomas apostoluaren hobian,
han geldituz hala-nola hatsankaturik, ezindua den lasterkaria bezala,
gelditze bat egiteko bere predikuan.

Gaizotoa :

Ba bainan nahiko ginuen eman zezan aitzina bere predikua, lehengo kalaxkan,
errepikatuz bere xirribikaren klixketak eta firrindak.
Firrindak, anderea, firrindak, eta ahantz zitzala alde bat otoitzak,
ahantz iturriko uretik edatea eta utz bere tartariken ziliportak,
ahantz ere bere Nausi Haundia eta jar zadila bere kondu, bere buruaren misiolari gu
guzien gisan.
Bainan ezta hortarik ari bere orazio eta ikuspenetan dena ere barnetik heldu zaion
bezala.
Helduko niza ?

Atezaina :

Eta hi horren gainerat hupaturik halere.

Gaizotoa :

Ni bai hunen gainean. Ahal bezalako posturan.
Ixterrak minberatuak bai, barkatu ! ene hegalpeak ere.
Enago ez molde egokienean, iduri zaldi potro basa baten gainean naizela eta...
Frantses ahuspekatzen da, orduan eroriz gaizotoa.

Gaizotoa :

Horra beraz ! Enauzuena errana !
Etzena egoiten ahal xut, treberik, kopeta zerualde !
Ez ordea. Jaunak behar zuen belauniko erori, jaunak behar du lurra milikatu, jaunak
behar
Adoratu.
Eta ni lurreratu, ene gizon izaitearen errespeturik gabe, ni naizen aingeru eta
hezgaitzarendako.
Irringarria. Etsaiak ezarri bazaitu zutik, hanbat gaixto harentzat. Eztuzu ez zuk tapala
lehertua egoiterik, ipurdiaren gainean haren gatik.
Zinezko sakagailu, apo txar. Orizu ene eskua eta goiti zaite.
Ezta ez probetxurik.
Orai badakit joanen dela urrunago Moroaren ugarteko buru laburtzaleetar,

oraino gure lauzkatzeko girixtino txarrik ez-eta lekuko txarrik ezten guneetarat.
Zer igurika zitakeen besterik, arnegatzaile baten hobian egin bisita hortarik ?

Atezaina :

Arnegatzaile, haundixkoa duk hori, Tomas duk dudatu zuen apostolua,
sinesten etzuen apostolua.

Gaizotoa :

Sinesten zuen oraino gutan. Sinesten zuen oraino bere baitan.
Bainan ezto osoki ihardoki.

Atezaina :

Galdegin zuen halere ikustea sinesteko.

Gaizotoa :

Bainan zeren ikustea galdegin du ? Suzko habe haundi bat ? Ez anderea, zauriak,
zauriak, hunkitzeko !

Sinesgabetasun ttipiko gizona. Bere baitako sineste ttipia. Bere baitako sinestea bat-
batean ukatzen duena, beste baten baitan ezarriz sineste fermu bat.

Hor, taulen gainean, Tomas.

Harek ezagutzen baitzuen bere Salbatzailea zaurietan, ez bere argian, anderea, bainan
bere haragi urratu eta josi-gabe hartan,
eta hartan ezarri du erhia !

Atezaina :

Jasan ezazu, gaizotoa, jarraikiz emankizunean.
Japoniarako da Frantses...

Gaizotoa :

Badakit bai. Ikusten dut jada japonese bat hunen bila heldu, Anjiro izeneko bat,
Kagoshimatik etorria,
eta Anjiro hori badabila, itsasoz itsaso, entzuna baitu haren berri : ekarriko omen diola
Etsaiaren barkamendua.

Barkamendua bai, urriki soil bat aski balitz bezala !

Zeren Anjiro horrek, bere emaztearen amorante ustezkoa eta bere emaztea ezpata
ukaldi zorrotzez hil arazi ondoan,

kontzientziako griñak jana dauka gaiztoa urrikimin eta kilikan . Eta bere buruaz bertze
egiteko orde, gizon ohoragarriek egiten duten bezala, hor dabila orai, ez tripa urratuz bainan
arima idekiz apezak emaiten duen etsaiarekilako barkamenduaren bila. Habil bai bataioaren
hartzerat, Anjiro higuina eta har ezak Paulo Santa Fekoaren izena
eta mintza hakio hire Shogun eta Geishatarren herriaz eta han ere den misio-lur paregabeaz.

Atezaina :

Han, hi eta hirekilakoek aurkituko duzue hari oraino min gehiago egiteko bidea.

Gaizotoa :

Ukaiten ahal ote ginuke onharpena - onharpena diot eta ez baitezpada baimen osoa -
onharpen soila bai hari igortzeko...

Atezaina :

Zer ? Berriz ere galerna bat ala itsasoaren ezialdi bat bakarrik ?

Gaizotoa :

Ez ez ! Bakarrik zinturreko min on bat, behingoan mututzeko doia,
ahoko xirula hetsirik bere predikuetan ahogozoa idortuko diona,
xaramelaren ordeztul, ezta eta marrantak !

Atezaina:

Baduzu oraino txarragoen botatzeko baimena.

Gaizotoa :

Txarragoena ? Bainan predikari horrentzat zer ditake mututzea baino areagorik ?

Atezaina :

Zintzur osasuntsu on baten boztul ederra bai.

I. Agerraldia

Frantses Xabier, Atezaina, Anjiro japonesa (Santa Feko Paulo).

Yamaguchi daimyoren gortean. Frantses zetazko kimonoa jauntzirik. Mintzaldi luze baten bururatzen ari.

Frantses Xabier :

*Jesusama !
Wa anatagatani
Shinjitsu to Onitchi
Wo ataele-koudassalou.*

Atezaina, guretzat interpretareana egiten duela :

Gisala Jesu Kristo, gutarik baxotxarentzat hil eta piztua, gure salbatzera dator, berekin ekarriz egiaren eta biziaren betea.

Frantses Xabier :

Huna bi oren orai predikian ari nizala ezpainak urraturik eta bihurturik ari den dohakabe baten gisan,
eta mintzaira korrokari, jauzikari hau, ulertzen ez tudana, ene ezpainetarik jalitzen baitzaut sorginaren ahoko arroltze edo ezpata iresleen sabeleko sabreak zintzurretik atera litazkeen bezala !
Anjiro, Paulo ene anaia maitea,
Hik dituk ene hitzak hiretarat itzuliak, eta ni hemen itzulpeneko soinu bitxi horiek errepika ahala, gogoz ikasten ari,
iduritzen zaidak igelak ditudala ahotik botatzen,
iduritzen ba abere basen oiho salbaiak ditudala jalgitzen, alta Kredoa dieiat esplikatzun,
hitzez hitz.
Hala duk ba, sinesten diat hire itzulpena zuzena dela, Anjiro,
itzulpen zuzena ba, Jauna, eta eskerrak zuri !
Ikusten diat lorietan dagoela baiezka daimyo hori eta horrekin ere bereak ditien samourai guziak eta jende hau oro,

iduri baitute Ebanjelioaren entzuten ari !
Iduri bai, ahoa zabalik bere bularren airez asetzen ari dena !
Zer diote Anjiro, zer ihardesten dute ?

Anjiro :

Erran nahi baita...
Ihardesten dute ezartzen ahal duzula Jesusen itxura tenploan.
Beste bultuen artean.

Frantses Xabier :

Beste bultu itxuren artean... Ni niz, Anjiro, Paulo anaia, ni bultu mutu bat horien
erdian !
Jauna, igor aguzu Mendekosteko Izpiritu hura, ama-mintzairak zilatzen ditien Izpiritu
bera, eta haurrak berak hunkitzen ditiena !
Anjiro, Paulo, bilatzen baginu hitz bat Jainkozko izaitea erran nahi diena,
Erraiteko ez deietala, ez, idolo berri bat ekartzen bainan Jainko betikoa eta beti berria
denak niela igortzen, hots Jainko betierekoak.

Anjiro :

Badugu bai *Dainitchi* ren izena.

Frantses Xabier :

Dainitchi ?

Anjiro :

Hori dugu Biziaren iturria,
diren guzien iturria.

Frantses Xabier :

Ontsa bai, ederki.

Anjiro :

Gainera, hiru bururekin agertzen da *Dainitchi* hori.

Frantses Xabier :

Aurreikuspen bat ote ? Trinitate Saindiaren aitzinargi edo aurreikuspena hori,
Probidentziak emaiten daukuna bidearen prestatzeko edo ?
Zoazi ba Anjiro, errozute *Dainitchiren* hiru presunetarik bat dela Jesus, Jainko
hirukoaren Hitza, bera Jainko eta gizon egin zena.

Anjiro :

Dainitchi, hay, hay,
Dainitchissama wa anatagatani
Shinjitsu wo attaete-koudassalou,
Hay, hay, Dainitchi.

Frantses Xabier :

Irriz daude, Paulo anaia,
ala Hitzari baia emanaz, azkenean ?
Zer ote diote, Anjiro, zer diote ?

Anjiro :

Zera... Ezpainuen gehiago gogoan.
Hauek diote Dainitchi dela giza-hazi-iturria, hari lotua baita ema-iturria,
Coji.
Atsegin lukete zuk aipatzea ema-iturriaz zerbeit.

Frantses Xabier :

Ema-iturria ?
Ala hor aipatzen ahal ote deiet, Zeruko Ama, *Coji* hortan nolazpait ?
Birjina garbia, *Coji* hori bezala ?

Anjiro :

Hots... shinto horiek, oroitzen naiz...
Nola zuten Dainitchi goretsi eta harekin *Coji* Iguzki Haundia eta *Coji*, hunek, ilargi
betean, gizonak ema-giritzen edo gutiziarazten baititu.

Frantses Xabier :

Baditake hitz bat horren eraiteko, Anjiro.
Bila zazu zure burumuinetan eta Izpiritiak ekarriko dauzu barnerat bere suzko mihia !

Anjiro :

Ai !

Frantses Xabier :

Ai ?

Anjiro :

Uste dut badutala.

Frantses Xabier :

Mintza, anaia, mintza !

Anjiro :

Badugu *Hotoke*

Frantses Xabier :

Ho-toke. Hauxe da izen bitxia.

Anjiro :

Lehen hazia edo erroa bai, Argizko hura, hartarik sortzen baitira Bouddharen
agerpenak.

Frantses Xabier :

Ederki. Goazen *Hotake* horrekin.
Erraiezu *Hotoke* bezala dela Jesus gure Jauna.
Hotoke hori Pontzio Pilatoren denboran egin zela judu gizona, Dabiden leinukoa gure
salbatzeko.

Anjiro :

Hori bera, Frantses anaia, horixe.
Hotoke ? hay, hay
Hotokessama wa anatagatani
Shinjitsu wo attaeke-koudassalou,
Hay, hay Hotoke.

Frantses Xabier :

Gaizo Paulo-Anjiro,
ikusten deiet begitarte eta hura dena argitan dela ohartzen.
Eta zer diote, Anjiro, zer diote ?

Anjiro :

Zera... nik ahantzia nuena.
Diote *Hotake* horrek eztuela lehen aldia gizon egiten dela.
Hainbertze alderdi edo izanaldi, badu. Zerbait gaizki doan guziz, gizon itxura hartzen du.
Gustatzen zaie jakitea *Hotake* horrek, jadanik askotan gizon egin ondoan, kondairen araberan,
onhartu duela gizon egitea beste herri batzuetan .

Frantses Xabier :

Jauna,
Boza badut eta mintzorik gabe niz,
hitza badut eta elerik gabe nago.
Paul Anjiro, ene ustez hitz berri bat behar dugu, hitz berri bat japonentzat,
hitz bat, ber horien hizkuntzakoa eta sentsuz aski hurbila.

Anjiro :

Eta zein litake hitz berri hori ?

Frantses Xabier :

Hitz xaharra da hitz berri hori.
Jainkoa
gure mintzaira latinean.
Deus, Anjiro, errozute *Deus*.

Anjiro :

Bai, aita Frantses.
Deouso, ssama, hay, hay,
Deouso ssama wa anatagatani
Shinjitsu wo-ataeke-koudassalou,
Hay, hay, Deouso.

Frantses Xabier :

Entzuten dut hitz saindu hori errepikatzen dutela,
eta hurrek ere errepikatzen dutela
irri batekin.

Anjiro :

Erran nahi baita...

Trufa bat da, aita Frantses, trufan hasiak dira.
Halako hitz-joko bat baita hor, indioiloaren kulukaren eitekoa, hala-nola hurrek jostetan erreferatzen duten pilotarena,
eta jende helduek... ez, eztoa ongi, aita Frantses, ezta batere egokia.

Frantses Xabier :

Zer ? Zer da beraz ?

Anjiro :

Hauxe : *Deus* hori baizik ezta, eta zure doinuarekin, egiten du *Daouso*,
erran nahi baita *Daouso*,
bai, *Daouso*, aita Frantses.

Frantses Xabier :

Bai, eta zer da *Daouso* ?

Anjiro :

Horrek erran nahi du
« Gezur Haundia ».
Oi ! Barka zaidazu, barka, aita Frantses !

Frantses Xabier :

Ezta zure falta.
Ni niz, beharbada
Ni niz tarrapatan ari eta, hola, lehen maila hutsegiten dut.
Orai ere iduri dut beihalako Moluken ugartetan edo Moroaren hartan ziren gizonekin bezala.
Han ari nintzan predikatzen erranez behar dela lagunaren gorputza errespetatu,
heiek ihardesten zautaten, baietz ba, errespetatze hori zela gure triparat eta gure odolerat lixeritzea, lagun proximoa gutan izaiteko bere zuhurtzia eta indarrekin.
Eta nik ezetz, etzirela batere adiskideak eta etxeokak jan behar saltsa berdean.
So egiten zadata. So egiten begi onez eta ihardesten baietz, baietz, zu gizon zuhurra zira, zuria, maite zaitugu,
hortako, hilen zirenean, ohoreak eginen dauzkitzugu eta ez gira uzkur egonen zure gorputzaren saltsarik gabe jateko.
Eta zoazte zuek Eukariztia solas, hortarik landa !
Bainan zure anaia japonesak Moroaren ugarteko Tabarustarrak baino hobeki gidatzen ditu zentzuak.
Oxala ! nik gizon zuhur bat aurkitzen ahal banu, hala nola herri huntako Budaren Bonzoetarik bat, harek jakinen baitzuen margolari on baten gisan bere tintaki arrosotan hautatzen zeru urdin-urdinaren margotzeko,
hala jakizu zuk ere hitzaren neurrien izartzen.

Koro II

Frantses Xabier, Atezaina, Gaizotoa.

Berriz ere Frantses otoitzean belauniko. Gaizotoa ez du espalden gainean baina hura ahusatu nahiz ari da.

Atezaina :

Halere zuk ja lotsarazirik ezarri duzu bai, oixtian.

Gaizotoa :

Guk oixtian osoki asearazi dugu bai... munduaz, anderea, munduaz !

Atezaina :

Bazuen-eta jasan ahala.

Gaizotoa :

Eztakizu ez, nolakoak diren horiek : berak ezinduak direnean, Jainkoak badezake horien baitan.

Hauxe da komedia ! Guk nahi ginuke bere baitan fida dadin, bere baitan bakarrik, beren itxaropenean sustatu nahi ginuzke jendeak, anderea.

Gu gaituztelarik mustrotzat ekartzen bera da mustroa.

Herensugea, herensugea, zuk hari burua motz eta txust ! beste bi buru sortzen zaizko.

Badakizu Aikidoak, partida duenaren indarra baliatzen du haren jotzeko.

Hori du bere jokoa, berari lotzen zaio zainetan etsaiaren ahala.

Pulunpatzen duzu ifernu ilunerat eta, hiep ! hartan berean finkatzen ditu barnago bere fidapenak,

Ezarriko duzu odola zurituri bezala eta, aupa ! horra nun duzun bere Aitaso zerukoaren menturan jarria,

eskolatu zuten, haren baitan ezarriz besteren herra, gorroto eta nor edo noren aldeko okaztatzeak, bainan brau ! Amodio maitasun bihurtzen ditu berak hoik ere... Hola da !

Xutitzen da. Emanen diot esku goxo.

Lagunduko zaitut, Frantses, zure ezindura antzutu hortarik berloratzen, eta ere meneratua zaituen leherduratik xutitzen... Hea !

Frantses, beti bere zokokerian berekoi, lotzen zaio esku eskuinaz Gaizotoaren eskuari, eta eremaiten du berekin gorputza zeinatzen dion kurutze seinale haundi hartara. Gure debrua hor dago jestu horren pean karateko estoka batean bezala, hor deraukotelarik besoek eskua eta ukondoa bihurtua.

Gaizotoa :

Traidore huni ! Ustela !

Nola diezaket horrek eskua gizonki tinka edo musu bat eman ?

Atezaina :

Polliki, Gaizotoa, zaude zure baitan.

Gaizotoa :

Zer den haatik !

Kausitzen ahal balu bederen hunek hemengo bonzoetarik bat, bera baino zuhurragoa, duen elasturiaren tapatzeko !

Atezaina :

Bada bai, bonzo bat, kasko pelatu bat duena, arroltzea bezala dirdiratua.
Portuges tratulariekin ikasi zuen mintzaira. Ninxit du izena.

Gaizotoa :

Ahal balitz, ez dautzut ez otoi erraiten bainan ahal balitz...

Atezaina :

Zer ? Izan dezan zintzurreko min bat, ala ote zintzurreko boza hoberenean ?

Gaizotoa :

Ez. Bainan konberti dadin,
sar dadin alde bat bonzo horren erlisio onean eta Hutsaren sineste-kide bilaka.

Atezaina :

Hartze duzu ba txarragorik eta hoberik ere.

Gaizotoa :

Zer izan ditake misiolari horrentzat japonese bonzo bilakatzea baino areagorik ?

Atezaina :

Hor egon dadin kurutzean loturik.

II Agerraldia **Ninxit bonzoa, Frantses Xabier.**

Ninxit bonzoa :

Entzuten eta ulertzen zaitut, arrotza.
Galdez zaude, uko egin dezagun idoloeri,
galdez bai, ez adoratzeko ez harri, ez zur, ez-eta gizon-eskuz egina den besterik, heiek
salbatuko gaituztelakoan,
eta nik diozut : holakorik eztitakeela.

Frantses Xabier :

Eztitake ez, zeren? Ala uste ote duzu, zinez, itxura xoro eta aldakor
horiek aski direla zieri zorionaren ardiesteko ?

Ninxit bonzoa :

Eztitake, zeren ezpaitugu sinesten.

Frantses Xabier :

Eztuziela sinesten ?

Ninxit bonzoa :

Eztugu nehoiz sinetsi. Nola uko egin, egundaino igurikatu izan eztugunari ?

Frantses Xabier :

Bainan itxura horiek ? Eta eskaintza horiek ?

Ninxit bonzoa :

Sinbolo batzu dira horiek herriarentzat, ezpaita gai, berez, herritarra zuhurtziaren goren hartarat heltzeko.

Hala-nola, esnea ematen zaie haurreri bainan gizon helduak behar du ausikiz jaten den haragia.

Nola sinets ginezake guk mamu aldakor, edo diozun bezalako, xanfarin edo finkaezin horietan ?

Aldatzen den zerbait, ezten bat, eta berriz izaiten, aldatzen, eta azkenekotz eztena, lilixka xume bat, lohitik jalgi eta harat itzultzen dena, halako zer bat orai higitzen eta gero baterez, zeren sorgia edo iturburu ginuke hori ?

Frantses Xabier :

Eskerrak Jaunari, harek erakutsi baitaiku ez xoilki zentzia bainan ere oro zentzuz erabiltzen.

Hurbil hurbildia zira girixtino aitormenera.

Ninxit bonzoa :

Nahi dut bai girixtinotu, egun berean.

Frantses Xabier :

Ze erran duzu ?

Ninxit bonzoa :

Nahi dutala girixtinotu egun berean. Horra hemen ura, aldatzearen seinalea. Egizu zure elizakoa.

Frantses Xabier :

Onhar zinezake Kristoren heriotzean pulunpatzea, gero harekin berriz sortzeko ?

Ninxit bonzoa :

Bada hemen ura. Apaltzen dut burua. Hiru aldiz ixurtzen didazu ene kasko legunari beheiti.

Frantses Xabier :

Zaude. Solasketa bakar baten ondotik, eta zenbait hitz bakar, dakigularik hogoi-tahamar

ez direla aski izan gure herritar xumeenarendako,

Izpiritiaren argiak distiran ezar lezakea jadanik zure bihotza ?

Ninxit bonzoa :

Haren argiak su jauzikari baten gisan. Bai. Beharbada.

Girixtino egun. Bihar beste zerbait.

Frantses Xabier :

Nola hori, bihar beste zerbait ?

Ninxit bonzoa :

Ura ez ote da sinboloa edo seinalea, behin eta bietan berdina ezten zerbaitena ?

Ez ote dugu erran deus eztela berdina egoiten munduan eta oro, Fuji mendiaren ederra

eta guziak, eta halaber ere neskatxaren begitarteko eztitasuna,
oro jaten ezdeusak, ezeztatze legez.
Egun kristau, bihar besterik, arrotza,
gauzen aldakortasunak, arrotza, batean agertzen eta bestean desagertzen direnen
aldakortasunak geramatza erro-iturbururat, zera...

Frantses Xabier :

Badenaren ganat eremaiten, betiereko biziaren eta amodioaren iturburura,
eta izaitea eman dezakeen bakarraren ganat.

Ninxit bonzoa :

Ez, bainan eztenaren ganat,
oro ezeztatzerat, ezizanerat, deusez haundirat,
zalu zalua deramatzanaren ganat.
Mundua jukutria bat da, huskeriak bere buruaren kontra jokaten duena. Mundua
ilusio bat da.
Sar zaite ilusio hortan eta pairatzen duzu :
oraiko unean ahurreratzen duzuna erhietarik doakizu sarrikoan.
Husturik ezar zure barnea eta bazaude maiatzeko zeruaren ezian, sumendi hilaren
gainean bezala eta eztuzu gehiago pairatzen.
Oro sortzen dira, oro hiltzen eta pizten berriz hiltzeko. Zertako baratu piztean ?
Zertako joan hutsaren iraultzera eta eztenaren ildoan eraiterat ?
Hor zaude elur luma ahurrean ezarri eta gogor tinkarazi dautzunaren pare, hura ez
galtzeko.
Itxaropena beti galtze bat da. Pairamenaren erroa da. Gutziak pairamena sortzen du.
Gutziak ezeztatzeko dauzkagu guk.

Frantses Xabier :

Guk aldiz gutizia gorago deramagu Jainkoaren Nahiraino.

Ninxit bonzoa :

Zure Jainkoa hain ona bada, zertako bada utzi gaitu hain luzaz bere salbamenduaz
parte eman gabe ?
Zertako hoin berandu etor gutara ?

Frantses Xabier :

Eztu berantik Badenak, jadanik hor betitik zenak eta zien bihotzen barnean dei egiten
dautzienak,
eta zien aitek ilunbe artetik ihardetsi baitiote, hari duzie ziek argi betean eta gorago
ihardetsi behar.
Huna heldu nizala ni bataioko urarekin, haziaren ihinztatzerara, huntarik jalgitzeko beti
menturan zagon zuhaitz haundia.
Heldu niz ba, iguzkia lehenik ateratzen den herri huntara, zier mezutzera gain hartako
iguzkia agertu zaitziela zien herriari ekarriz bere zeruko egia, zien herriarendako,
jina niz ni, ez on izana gatik,
ziri erraitera hautatiak zineztela mundiaren haste hastetik.

Ninxit bonzoa :

Bainan beste jainko batzu maitatu zituzten gure aitek. Gure ohidurek beste historia

batzuetan dituzte beren zimenduak Gure legeak Xinatik etorri ziren.

Eta zu, hunara heldu, hoik oro jakin gabe, gure mintzaira hau jakin gabe, gehiago dena horiek guziak haizatuz firrindaka, zure esku beneikatzaille horrekin, eta erranez gainerat amodioz ari zarela.

Frantses Xabier :

Ez niz ez zien ohiduren funditzeko ari.

Eztut batere japonesez arbolaren erroten egiteko gogorik, ez, ihintzatzen dut bakarrik, moxten, mamutxa zitaletarik garbitzen...

Ninxit bonzoa :

Zu gure oihanaz jabetzera etorria bainan eztuzu izerdi gabeko zuhaitzez besterik bilduko zuk hemen.

Zer probetxu bai zuretzat, munduaz jabeturik ere, herri huni bere arima galtzeko bada eta zure ondotik artalde marrazari ahanzkortu bat herrestatuz zure ondotik ?

Frantses Xabier :

Ze balio du mundiaz jabeturik ere...

Ninxit bonzoa :

Itzul heure etxerat, arrotza, hire ustekeriekin, hire gezur haundiarekin, hire egiarekin, ezpaita nehon balio duen egirik batere ! Pft (*Tu egiten dio aurpegirat*)

Frantses Xabier :

Ene anaia...

Ninxit bonzoa :

Enauk hire anaia !

Irri egiten duk ? Nik hiri tu egiten eta hi irriz, lorea ihintzean bezala ?

Frantses Xabier :

Jaunak benedika zaitzala eta argi beza zure begitarrea. Ni banaoa.

Joanen niz ba Xina hartarat nundik eta jin baitziren zien legeak.

Eskertzen zitut zuk eni erakatsi guzietaz.

Ninxit bonzoa :

Ez, ago...

Behar baitugu elgarrekin bazkaldu. Gure anaien ezagutzak eginen dituk, ni gidari.

Agerraldi hau bururatzean, gaizotoa, nekatua bainan soraio, badoa antzokirat, entzuleen artean jartzerat.

III Koroa

Atezaina

Atezaina :

Horra hainbeste egun mintzo ta mintzo dela, bere elasturian, eta nehork ez entzuten, eta gutienik ustean, tu ere egiten diote gainera, ixilik dago, eta horra hor dituela berari bataioa galdatzekotan !

Zein ezin-zilatuak diren haatik Jaunaren bideak !

Luze gabe, hiru ehun bataio Yamaguchin.
 Eta ixtantean, odol-ixurtzeak orobat beste hainbeste.
 Frantses joan da azkenean Xina alde mustira haunditan, enbaxadore batekin, eta opariekin enperadorearentzat.
 Bainan horra bidean bereek uko egiten diotela eta hantxe dago Shang Ch'wan ugartean, Canton go leihorretik hamar bat kilometretan.
 Hantxet dago itsasoari so, menturan, noiz hartuko duen untzi batek kontrabandako artikulu baten pare,
 eta eztu berekin xinatar gazte bat baizik, bataiatua, Anton.
 Hartu nahiko ote ditu untzi batek, eremaiteko ? Bixtan da bai ! Txalupa, traineru, belauntzi edo itsasartearen iragaiteko molde zernahi askiko zaiola berari pasaiarentzat !
 Hitzemana nautzuen, emankizun hau hastean, ikasiko zintutela nola sartu zen Frantses Xinarat.
 Eta gero, aipatu nautzuen ohea, ohantze-ilazkia bere ibilaldientzat. Bego hau erdi-erdian.
 Orain da oro argitzen ikusiko duzue nun ezten, nahiago baduzue, oro iluntzen !
 Eta paper hau, 1553 ko ekainaren 28 koa da eskutitz hau, Aita Inaziok Frantsesi igorria.
 Galdea du itzul dadin, berehala, Europarat. Itzul dadin, bai.
 Bainan gaizki heltzen ziren gutunak denbora hartan.
 Ehun eskutitz igorri, eta zazpi ziren bakarrik heltzen. Hau helbideratu zen, suertez.
 Bainan hiru urte eta bederatzi ilabete behar zen igurikatu ihardespene baten ukaiteko.
 Hiru urte eta bederatzi ilabete. Zalu zabilan pazientzia. Igurikamenaren pisukoa hitz bakotxa.
 Gutun batek zortzi ilabete behar Indiarat heltzeko. Behar bada hamar Shang Ch'wanerateko. Inaziorena xuxen helduko ote da? Bai.Ez.
 Frantsesekin beti baia, ximixtan!
 Jadanik hor dago bai, bere aita Inazioren ondo ondoan da, aita Inaziok galdegiten diolarik
 itzultzeko, eta bere lagunaren ondo ondoan haren sinadura moztua du eskutitzaren zolan, eta bere bihotzean ditu bai sinadurak.
 1553 ko ekainaren 28 koa zuen gutun horri eginen dio bai Frantsesek ihardespene, abendoaren 3 an berean, 1552 ko abendoaren 3 an.

III. eta azken agerraldia.

Frantses Xabier, Anton Xinatarra, Atezaina.

Frantses Xabier :

Etzan nezak hemen, Anton, suerteak emanikako ohantze huntan.
 Alabainan, Jainkoa berri sortzen ari duk, frangotan hola ari duk, Anton, eta menturaz beti ere.
 Holako soinuari haundia berri sortzaile haundia bada, nolaz ez litake hura berri sortzaileetan haundiena ?
 Gogora diezadak nun giren hemen.

Anton :

Shang Ch'wan ugartean gaude, Aita Frantses,
 bi lekora eterditan Xinatik,
 oren batena untziz,

hameka oren igerika,
bainan minota zenbait itotzetik.

Frantses Xabier :

Xina hoin hurbil bada, eguneko mamutxa baten bidean, nolaz ez gira gu harat heldiak oraino ?

Anton :

Don Alvaro Altaide de Gama, Malakako itsasoen kapitainak, eza emana du Santa Cruzetik abiatzeaz.

Auzitan da Souzako erregeordearekin, hunek emana zaikularik joaiteko baia.

Eztu nehondik zure nuntzio apostoliko titulua ezagutu nahi, zure gomendio ageria behar duela eta zuk eztuzu gomendio ageririk.

Frantses Xabier :

Hobeki erraiteko, zigilu-marka bat falta,
zigilu bat Batikanoan bilatu behar zena, bulegoko hirugarren ordezkari baten eskutik.

Anton :

Don Alvarok jauts-araziak ditu kaian Xinako enperadorearentzat apailatuak ginituen opariak : hezetasunean ordulari ttipia herdoiltzen ari da, Andrevena Maria karabilkatzen, Izpiritu Saindua iluntzen eta histen ari paperean.

Idatzia zinion Jaun Apezpikuari, bereak erran zitxon holako pidaia trabatu beharrez ari zen arduradun hari.

Zuk idatzia ziniolarik Aita Inaziori segur zinela orai eta arras ponduan, Xinan sartzeko.

Nola jasan, Aita Frantses, bi lekoa horien gatik gelditzea, zuk beste hogeita bost mila hunaraino iragan ondoan ?

Frantses Xabier :

Orai gauden itsas bazter huntarik,
egun argiz ikusten duk Xina bere urbazter kolore hori eta gorrailekin,
iduritzen zaitak eskua luzatzen banu...

Anton :

Ba bainan untzi bat segurtatu behar.

Frantses Xabier :

Txalupa bat arrandatuko dioguk.

Anton :

Haatik, ez baita ordea itsas-lapur eta kontrabandistik baizik.

Frantses Xabier :

Preseski ! Girstino munduko jauneria horrek bidea hesten badauku,
Joanen gituk Kristoren mezulari itsas-lapur eta kontrabandistekin!

Anton :

Zuk sukarra baduzu, Aita Frantses.

Frantses Xabier :

Sukarra baino gehiagokoa diat ni erretzen nauen nahikundea,
Anton gaixoa, ene xinatar leiala hintzan jadanik, ene xinatar bakarria hago ondikotz,
goazen bada berritik, Jainkoa berritik ari duk.

Habil beraz ikus, ez ote den kapitain sorjes bat izanen, bi ahapaldi tzarren artetik bada ere, onartuko diena gu hantxet aurdikitzea ondarkin batzu aurdikitzen diren bezala, Xinako itsas-hegi batean.

Anton jalgitzen da.

Frantses Xabier :

Jauna, zuk igorri nuzularik Indietarat, uste nien hango indioeri predikatzea:

Eta han ohartu nintzan lehenago gibelean utziak nitien portuges batzuri behar niela lehenik predikatu.

Gero, Jauna, igorri ninduzun molukiarretarat, han etzelarik giristino hotzik gure berri onaren mezutzearen trabatzeko, eta uste izan nien han zela fedea predikatu behar:

Ohartu nintzan hango gure anaia pobreeri zentzia zela lehenik mezutzekoa.

Azkenean, Jauna, Japoniarat igorri nuzu, gizon zentzu argiko heietarat eta uste nien japonese horien giristinotzea niela egiteko:

Bainan ohartu niz giristinoek zutela behar lehenik japonese bilakatu

Orai hemen nago Xinari so, eta ez batere aitzinetik zer erranen dien badakien gizonaren gisan, bainan xoilki elaka ikasten ari den haurraren pareko.

Bera ikastera heldu denaren segurtamena du ene urratsak.

Japonesek diote Xinatik etorriak dituztela beren legeak. Nik aldiz diot Kristo emanen dietala, nihauk heien ganik hartzen badut eta jadanik heietan zela ezagutzen badut eta neurri hortan bakarrik.

Heieri ibai-bokalearen erakustera nindoan eta nihauk heiekin sorgiarat jo behar.

Anton berriz itzultzen da gibelerat.

Anton :

Bada bai xinatar futitu bat ereman nahi gaituena bainan hiru ehun ta berrogei-ta-hamar kruzadoreen biper beltza pagatzekotan guk.

Uste duzu ? Hiru ehun ta berrogei-ta-hamar kruzadoreen biperra, eta ezin fida oraino heian osorik helduko giren ere!

Frantses Xabier :

Hiru ehun ta berrogei-ta-hamar kruzadoreen biperra, Xinako lurraren ebanjelioko gatza izaiteko gu, eztuk hain kario ere.

Goazen bada xinatar botiges horren ikustera.

Frantses hasten da xutitzen bainan erortzen ohantze-ilazkiaren gainera.

Anton :

Sutan, sukarrez sutan zaude !

Frantses Xabier :

Sutan, errana daiat, Xina hori Jainkoa ganatzeko lehiaz.

Anton :

Bainan eztezakezu, damurik, ezindua zaude !

Otoi, erradazu ez nauzula hemen utziko !

Zuk enuzu uzten ahal, Aita !

Ni jarraiki nitzazu, zure esku jarri nintzan,
etzira ene besoetan hiltzen ahal. Nehola ere! Eztezakezu !

Frantses Xabier :

Ago bakean, Anton, egon bakean.
Segurtatia nauian gu elgarrekin sartuko ginela Xinan, elgarrekin.
Kondatu hautan bazinutela harresi haundi bat han, Nafarroa guzia bezain luzea,
bai eta harresi hura ere iraganen diagu, iraganen aldean bertze, hala-nola Jesusek
bezala, hura bai, ate-leihoak hetsiak zirelarik sartu baitzen.

Anton :

Hitzemaiten didazu, Aita ?

Frantses Xabier :

Hitza hitz, Anton !

Anton :

Halere, zu ez bazira ere oraino Xinan sartua, sartua zira bai ene xinatar bihotz xumean,
ene bihotzño xuri ta beltzean, yin eta yang naizen xinatar hunen bihotzean.
Bihotz huntan bai ezarri zinuen zure kurutze hau, zure arrosariotik dilingo dena,
amodiozko kurutzea,
eta ene begi xabalak oraino xabalagotu dira Jaunaren bihotzeko zauriari behatuaren
bortxaz,
zauri horri dariola odol eta ur, Yang-Tse-Kiang ibaian baino nasaiagorik !
Ez nezazula goizegi utz, Aita Frantses. Haurra naiz oraino, besterik ez. Jainkoaren
aurkitzeko irriskutan
ezta zuzen.
Hura madarikatzen banu ere !

Frantses Xabier :

Ez. Eztuk madarikatuko. Hemen nuk ni hirekin. Ez beldur izan.
Jauna gurekin duk.

Anton :

Bainan nola joanen gira ene herrirat ? Atsedean hartu behar duzu, Aita. Hobe duzu hain
segur Indiarat itzultzea.

Frantses Xabier :

Baditakek bide bat. Har karta, otoi, eta so egin. Erradak ze ikusten dukan.
Ez ote da hor areasalbe mihi mehar bat erhi xingilaren hainekoa, gu hartarik joaiteko
itsumandoka lurraldearaino ?

Anton :

Ezta mihi, Aita, zeren karta hortan elgar jotzen baitute Shang Ch'wan eta Xinak.

Frantses Xabier :

A ! Ikusten duk !

Anton :

Ba bainan karta da, eta eskalaren xeheak du egiten !

Frantses Xabier :

Hartzen ahal giniekek eskala haundiago bat eta orduan Europa-Asiak biak bat ezar litazkeek esku bakar batean.

Anton :

Zertaz ari zira, Aita ?

Frantses Xabier :

Itzul karta.

Anton :

Bainan ezta deusik kartaren gibelean.

Frantses Xabier :

Itsas-gizonek ditie kartak eskualde onetik,
ni bezalako gizonek ezditie deusetako.
Itzul beraz karta hori, eta errak ze ikusten dukan.

Anton :

Eztut ikusten azal zuri eta huts batez besterik.

Frantses Xabier :

Hortik gituk sartuko Xinarat.

Anton :

Aita, hitzeman duzu.

Frantses Xabier :

Eman hitza beteko diat eta ez beteko.

Anton :

Aita, hitzeman duzu.

Frantses Xabier :

Lur hitzemanak zerua zor !
Berri sortzen ari gituk, Anton gaixoa, berri sortzen.

Anton :

Zure kopetak labearen atea iduri du. Sukarra, sukarraren ele nahasiak dituzu, Aita !
Enezazula utz, Aita, hitzeman duzu. Enezazula utz edo madarikatzen zaitut. !

Frantses Xabier :

Entzun, Jauna, haur horren otoitza, etzitzan madarika.
Entzun zazu otoitz hori, zuhauk hunen arimaren altzoan ezarria.
Hurbil hakit, Anton, nik ikusteko gisan,
hire begitarteari beha diezodan goxara.
Hau ere zure itxura dugu, Jauna, gizon-eskuz egin guziak baino ederragoa,
hau ere liburu bizi bat, guk idatz gintiron guziak baino haundiagoa,
hau bai aurpegia, iduri diela gure ama Xabiereko gazteliaren aitzinean nigarrez,

arpegi hau gure aita Inaziorena bezalakoa, nihaur nintzan gazteliaren herrestoen aitzinean nigarrez egonki,
 arpegi bat beste hainbertze arpegi iduria, hala nola Kosme medikia, eta ene Rafael Paraver eta Anjiro, Ninxit eta beste guziak bezala, hemengo paregabe hau barne, hau ere bai, zinez orozgainekoa,
 eta zenbat holako, zure mixteriozko begitartearen mirailak, ene aitzinera jiten baitzaizkit, zu, ene Jainkoa, ene oinen bidetzat urratu zinien huntaraino,
 ala Pariseko bide galtzaretan, ala Montmartreko pentzeetan,
 ala Veneziako ubide ala Moroaren ugarteko aintziretan,
 ala Erromako karriketan, edo Comorin puntako basamortu hetan, Miyako gaineko elurtegietan,
 Zu, bai, zirela ni ganat heldu, ene Jainkoa,
 eta zu, orai, eni Xinatik eta urrunagotik ere heldu zautan aire onaren firfira, zu zira, ene Jainkoa, ni ganat heldu.
 Badakit alabainan orai. Badakit nik eta ainitz mintzo diren gizonek eztute jakinen.
 Usteko dute mundiaz jabetzerat heldu nintzala, alta zu zinelarik ene arimaren irabaztera
 jina horien bidez,
 usteko dute hek, Kristo neiela xinatarrerri eremaiten, alta zuk zinautan, zuk bai orozgainetik hura eni ekartzen horien bidez,
 eta eni zagokidan lagun hurkoaren atetik sartzea, gero ateratzea gatik elgarrekin Jainkoaren atetik, zien atetik.
 Ardietsi duta ?
 Ni nizan zerbitzari ez deusak irabazi ote du ?
 Eztagokit ez eni uztaren biltzea. Eniz ez ni sartuko, Jauna, besoen bete espalekin. Bide bazterreko eskale itsu hura niz ni.
 Nik haizea perekatzen duten bi esku hok dauzkitzut zuri luzatzen, huts baino hutsago, zeren ontsa baitakit esku eskale hok zuk emanak ditudala.
 Jesus, Dabiden Semea, urrikal zakizkit !

Anton :

Hitzemana dautazu, ene Aita. Etzaitezke hil ! Eztuzu hil behar.
 Oro galtze huts zinuzke, ene Aita.
 Galtze huts, madarikatuko dut.

Frantses Xabier :

Galtze bat, beste horrek bezala.

Anton :

Eta Portuges horiek, Cantongo presondegietan baitira ?
 joan behar da presoan libratzera, erien sendatzera, eztuzu hil behar.

Frantses Xabier :

Oi Maria, Jainkoaren Ama, oroit nitaz !

Anton :

Oroit nitaz, lehenik !
 Ezarriko dautzut ttpa busti bat kopetan. Neure hatsez ufatuko zure gorputzarat, arrosarioa
 erranen dut, hamarretaraino kondatuko, amets batekin, mirakulu bat egin baneza ere,

hasten naiz, bat, bi, hiru... etzaitela hil ! Enauzu uzten ahal, nehondik ere.

Frantses Xabier :

Fida hadi, fida Anton,
nik hitzemanari,
errana dauiat sartuko girela Xina barneraino eta joanen urrunago, urrunago
mendeetan barna beste herri ezagutu-gabe batzuetara, oraino ezagutu-gabeak ikusten ditiat,
nork daki eztuten entzunen, onartuko bai eta ongi-etorri eginen zin-zinez Hitzari...

Anton :

Ele nahasiak, aita Frantses, ele nahasiak !

Frantses Xabier :

Baduk ere itze hori, zangoetako itze hori, urrunago joaiteko ere, eta gorago...

Anton :

Ze itze, gaixo Aita ? Ezta itzerik. Ikusten dut bazoatzila.
Otoi, ez nezazula bakarrik utz. Hitzemana duzu ! Hitzemana !

Frantses Xabier :

Atezaina! Atezaina!

Anton :

Andredena Mariari ari zaio. Mariari ari bada, beraz badoa, hiltzen ari da. Kasu, Aita,
kasu !
Madarikatuko dut.

Horra atezaina.

Frantses Xabier :

Atezaina, jo zazu itzea,
jo itzea, eta oro eginik ditake.

Atezainak, erdi dudan, hartzen du antzerki hastean baliatua zuen mailua.

Anton :

Etzaitela hil, Aita, zin egina duzu. Ez ahal duzu arnegu batekin utziko bizia !

Frantses Xabier :

Xinan sartzen niz, Anton. Ez niz hiltzen.

Atezainak altxatzen du marteilua.

Anton :

Ez ! Ene Aita, ez !

Frantses Xabier :

Jesus, Dabiden Semea, urrikal gutaz.

Ilun beltza, edo erridaua. Gero entzuten da brigadazaina hastean bezala. (Atezainak sartzen du hirugarren itzea) eta horra hirugarren ikusgarria haste.